

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

**Arabako Lurralde Historikoaren
Kontu Orokorra**

**Cuenta General del Territorio Histórico de
Álava**

2016





AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURTZAPENAK.....	7
I. SARRERA.....	9
II. IRITZIA.....	11
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	11
II.2 Kontuei buruzko iritzia.....	12
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	13
III.1 Zerga sarrerak.....	13
III.2 Langileria	13
III.3 Kontratazioa	14
III.4 Diru-laguntzak	15
IV. FINANTZA ANALISIA	16
V. URTEKO KONTUAK	19
V.1 Arabako Foru Aldundiaren kontuak	19
V.2 Erakunde autonomoen kontuak	24
V.3 Sozietate publikoen kontuak.....	27
V.4 Foru fundazioen kontuak.....	30
ERANSKINAK	33
A.1 Araudi aplikagarria	33
A.2 Aurrekontuko aldaketak	33
A.3 Langileen ordainsariak	34
A.4 Transferentziak eta diru-laguntza arrunt eta kapitalezkoak	34
A.4.1 Erakunde konpromisoak.....	35
A.5 Sarrerak, zerga zordunak eta hornidurak	36
A.6 Transferentzia eta diru-laguntzek eragindako sarrerak	38
A.7 Finantza inbertsioak epe luzera eta finantza aktiboak	39



A.8	Administrazioko kontratazioa	40
A.9	Diru-laguntzen analisisa	43
A.9.1	Diru-laguntza izendunak	43
A.9.2	Deialdi bidez emandako diru-laguntzak	43
A.10	Gizarte ongizaterako foru erakundea.....	44
A.10.1	Langileen ordainsariak.....	44
A.10.2	Transferentziak eta diru-laguntzak.....	44
A.10.3	Administrazioko kontratazioa	45
A.11	Gazteriaren Foru Erakundea.....	46
A.11.1	Langileen ordainsariak.....	46
A.11.2	Administrazioko kontratazioa	47
A.12	Arabako Foru Suhiltzaileak.....	48
A.12.1	Langileen ordainsariak.....	48
A.13	Foru Sozietate Publikoak.....	48
A.13.1	Langileria-gastuak	48
A.13.2	Kontratazioa.....	49
A.14	Foru fundazioak.....	51
A.14.1	Langileria-gastuak	51
A.14.2	Kontratazioa.....	51
A.15	Arabako Lurralde Historikoaren Kontu Bateratuak	53
ALEGAZIOAK		57
ABREVIATURAS		69
I. INTRODUCCIÓN.....		71
II. OPINIÓN.....		73
II.1	Opinión sobre el cumplimiento de legalidad	73
II.2	Opinión sobre las cuentas.....	74



III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....	75
III.1 Ingresos tributarios	75
III.2 Personal.....	75
III.3 Contratación	76
III.4 Subvenciones.....	77
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	78
V. CUENTAS ANUALES.....	81
V.1 Cuentas de la Diputación Foral de Álava	81
V.2 Cuentas de los Organismos Autónomos	86
V.3 Cuentas de las Sociedades Públicas.....	89
V.4 Cuentas de las Fundaciones Forales	92
ANEXOS	95
A.1 Normativa aplicable	95
A.2 Modificaciones presupuestarias	95
A.3 Remuneraciones de personal	96
A.4 Transferencias y subvenciones corrientes y de capital	96
A.4.1 Compromisos institucionales	97
A.5 Ingresos, deudores tributarios y provisiones	98
A.6 Ingresos por transferencias y subvenciones	100
A.7 Inversiones financieras a largo plazo y activos financieros	101
A.8 Contratación administrativa.....	102
A.9 Análisis de subvenciones.....	105
A.9.1 Subvenciones nominativas.....	105
A.9.2 Subvenciones concedidas mediante convocatoria	105
A.10 Instituto Foral de Bienestar Social.....	106
A.10.1 Remuneraciones de personal.....	106
A.10.2 Transferencias y subvenciones	106
A.10.3 Contratación administrativa.....	107
A.11 Instituto Foral de la Juventud	108
A.11.1 Remuneraciones de personal.....	108
A.11.2 Contratación administrativa.....	109
A.12 Arabako Foru Suhiltzaileak-Bomberos Forales de Álava	110
A.12.1 Remuneraciones de personal.....	110



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.13 Sociedades Públicas Forales.....	110
A.13.1 Gastos de personal.....	110
A.13.2 Contratación	111
A.14 Fundaciones Forales.....	113
A.14.1 Gastos de personal.....	113
A.14.2 Contratación	113
A.15 Cuentas Consolidadas del Territorio Histórico de Álava.....	115
ALEGACIONES	119

Vitoria-Gasteiz, 2018ko uztailaren 19a

Vitoria-Gasteiz, 19 de julio de 2018



LABURTZAPENAK

AEFILO	2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzkoa.
AFA	Arabako Foru Aldundia.
AFS	Arabako Foru Suhiltzaileak.
AGA	Araba Garapen Agentzia, SAU.
AGIDLZ	Info Gaztea, Arabako Gazteen Informazio eta Dokumentazio Lurralde Zentroa.
ALH	Arabako Lurralde Historikoa.
AMAS	Autonomiari eta Mendekotasunari Arreta emateko Sistema.
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
DKE	Diputatuen Kontseiluaren Erabakia.
EAAAN	Estatuko Administrazioaren Artekaritza Nagusia.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EB	Europar Batasuna.
EBAO	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala.
EEAA	Erakunde autonomoak.
EGEF	Eskualde Garapenerako Europar Funtsa.
EGF	Europako Gizarte Funtsa.
EGL	Ezinduak Gizarteratzeko Legea.
EJ	Eusko Jaurlaritza.
EUA	Edateko Uren Araztegia.
FA	Foru Araua.
FAG	Foru Agindua.
FD	Foru Dekretua.
FEAGA	Europako Nekazaritzako Berme Funtsa.
FEOGA	Nekazal Orientazio eta Bermerako Europako Funtsa
FKPPO	Foru Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra.
FOFEL	Toki-erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsa.
GFE	Gazteriaren Foru Erakundea.
GOFE	Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea.
HUA	Hondakin-uren Araztegia.
KSA	Kirol Sozietate Anonimoa.



LGENTF	Landa Garapenerako Nekazaritzako Europar Funtsa.
MEAO	Merkataritza Erregistroaren Aldizkari Ofiziala.
PBSA	Pertsona bakarreko Sozietate Anonimoa.
SA	Sozietate anonimoa.
SL	Sozietate Mugatua.
SPKLTB	3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onesten duena.
SSPP	Sozietate Publikoak.
TEPEF	Toki Entitateen Partaidetza Egonkortzeko Funtsa.
TTEE	Toki Erakundeak.
TVCP/HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
ZFAO	Zergen Foru Arau Orokorra.



I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta 2017rako Lanerako Programan erabakitakoari jarraikiz, Arabako Lurralde Historikoaren (ALH) 2016ko ekitaldiko Kontu Orokorraren fiskalizazioa mamitu du.

Fiskalizazioak honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkoak: ezargarria den arategia honako alor hauetan betetzen dela egiaztatzea: aurrekontua, zorpetzea, finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak, diru-laguntzak eta laguntza publikoak eta zuzenbide publikoko diru-sarrerak.
- Kontularitzakoak: Kontu Orokorra ezargarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu den aztertuko dugu.
- Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu likidazioaren finantza analisisa.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta efizientziari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi ere, azaleratutako hutsak “Kudeaketaren alderdiak eta Gomendioak” idazpuruan xehetasunez jaso ditugu.

Arabako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorrak ondotik zerrendatutako erakundeek 2016ko ekitaldian gauzatutako aurrekontu, ondare eta diruzaintzako eragiketa guztiak besarkatzen ditu (ikus ALHren Kontu Orokorra www.araba.eus-en:

- Arabako Foru Aldundia
- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea (GOFE). Erakunde autonomo administratibo honek gizarte zerbitzuekin zerikusia duten jarduerak antolatu, kudeatu, bideratu eta gauzatzeko ardura du.
- Gazteriaren Foru Institutua (GFI), gazteriaren erabateko prestakuntza eta sustapenera zuzendutako erakunde autonomo administratiboa da.
- Arabako Foru Suhiltzaileak Erakunde Autonomoak Araban Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua ematen du; uztailaren 13ko 8/2016 FA bidez sortu zen eta 2016ko urriaren 1ean abiarazi zuen jarduera. Arabako Foru Suhiltzaileak Erakunde Autonomoaren likidazioak barne hartzen ditu jada desagerturiko Aialako Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuen Partzuergoak 2016ko ekitaldian urtarrilaren 1etik irailaren 30era arte egindako lanak.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- AFaren sozietate publikoak, zeinetan kapital sozialean duen partaidetza % 50etik gorakoa den:

SOZIETATE PUBLIKOAK	% PARTAIDETZA	XEDEA
Araba Garapen Agentzia, SAU	100	ALHren sustapen ekonomikoa
Naturgolf, S.A.....	99,98	Izki-Golf multzoaren ustiapena
Arabako Kalkulu Zentroa, S.A.	100	Ustiapen informatikoko zerbitzuak
Arabako eraikitako Ondare Kulturalaren Kudeaketarako S.A. (Arabarri) (*).....	55,90	Zaharberritze integratuko jarduerak Likidazioan.
Arabako Lanak, S.A. (**)	99,56	Azpiegituretako obra publikoak proiektatu, finantzatu eta ustiatzea Likidazioan.
Fernando Buesa Arena, S.A. (***).....	100	Likidazioan.
Arabako Bideak, S.A.	100	Arabako Lurralde Historikoan zehar igarotzean A-1 Autobidea eraiki, zaindu, mantendu eta ustiatzea.
Aldalur Araba, S.L.	100	Nekazaritza eta arrantzaren garapenerako lursailen salerosketa
Indesa 2010, S.L.	99,98	Arabako pertsona ezinduentzat enplegua sortu, betiere enplegu zentro berezi modura.

(*) Arabako Lanak, SAre parte-hartze ehunekoa.

(**) Likidazioan 2016ko uztailaren 20ko Batzar Nagusiak hartutako erabakiaren ondoren: erakundea desegin eta bertako langileria foru sektore publikoko beste erakunde batzuetan subrogatzeko 2016an.

(***) Sozietatea likidatzeko 2017ko ekainaren 26ko eskritura publikoa.

- Foru fundazioak:

FORU FUNDAZIOAK	HELBURUA
Artium.....	Arabako Arte Garaikidearen Euskal Museoa Zentroa-Artium kudeatu eta zuzentzea.
Santa Maria katedrala.....	Gasteizko Santa Maria katedrala eta hiri ingurunea egonkortzea, leheneratzea eta zaharberritzea.
Añanako Gatz Harana.....	Añanako Gatz Harana eta bere ingurua egonkortzea, leheneratzea eta zaharberritzea; ingurune horretan berriaz barne hartzen dira "Ikkitak edo Miozenoko aztarnak" izenekoak, Añanako udalerrian daudenak.
Kirolaraba.....	Kirolaren sustapena eta garapena Araban, goi errendimenduko kirol ez profesionalari lehentasunezko arreta eskainiz.

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. Diputatuen Kontseiluak abenduaren 18ko 53/1992 FAREN 125. artikuluan aurreikusitako aparteko prozedura bitartez, Ekonomia eta Aurrekontuen Araubideari buruzkoak, 2016ko ekitaldiko gastuak baliokidetu ditu 557.792 euroren zenbatekoan (457.048 euro AFARENak eta 100.744 euro GOFERENak); Artekartzak, baina, baliokidetze horren aurkako txostena egin zuen. Honako hauek izan dira egindako ez-betetzeak: kontratua aldatu gabe gastua handitzea; publikotasun eta lehia printzipioak ez gordetzea; eta hitzarmenak aldatzea aurretik horretarako eskumena duen organoaren onespina jaso gabe (ikus A.8).
2. GOFEK bi hornidura eta zerbitzu bat kontratatu ditu guztira 365.309 euroren zenbatekoan, ezargarriak zaizkion prozedura ireki edo publikotasundun negoziatua saihestuta (ikus A.10.3).
GOFEK 262.324 euroren zenbatekoan aldatu du hitzarmen bat eta 269.936 euroan kontratu bat, horretarako eskumena duen organoak aurretik onetsi gabe (ikus A.10.3).
3. Araba Garapen Agentzia, SAUK zerbitzu bat kontratatu du 108.837 euroren zenbatekoan eta Indesa 2010, SLk hamaika hornidura kontratatu ditu 899.052 euroren zenbatekoan, publikotasun eta lehia printzipioak gorde gabe (ikus A.13.2).
4. Gatza ontziratzeko zerbitzuen kontratua 130.226 euroan esleitu zuen Añanako Gatz Harana Fundazioak eta kontratu horren exekuzioak % 56an gaintitu du zenbateko hori. Jokamolde honek lehia printzipioak urratzea ekarri du, izan ere adierazitako igoerak desitxuratu egiten du kontratuaren bolumen ekonomikoa. Bestalde, Fundazioak 224.617 euroan esleitu zuen turismoa artatzeko zerbitzuaren kontratua eta % 16 gehitu da egikaritzea. Bi lizitazioek ez zituzten luzapenak balioetsitako balioarekin jaso eta zenbatekoa kontutan hartuta, arautze harmonizatuari meneraturik zeuden; ez dira DOUEN argitara eman (ikus A.14.2).

Epaitegi honen iritzira, 1etik 4. paragrafora bitartean aipatutako ez-betetzeak alde batera, ALH osatzen duten entitateek (ikus I. Sarrera) zuzentasunez bete dute 2016ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.



II.2 KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Arabako Eraikitako Kultura-ondarea Kudeatzeko SAK (Arabarri) ibilgetu ukiezinean jaso du Bergarako Jauregia izeneko eraikinaren erabilera eskubidearen balioa, 1,6 milioi euroren zenbateko garbiarekin. Sozietatea likidazio bidean da eta honenbestez, eskubide honen balorazioa gauzatzeko eszenario batean egin behar da eta ez abian den enpresa batenean.

Ez dugu izan gauzatze balioa euskarrituko duen txostenik. Eta honenbestez, ezin eskuratu izan dugu auditoriako ebidentzia nahikoa eta egokirik aipatutako erabilera eskubidearen kopuru berreskuragarriari dagokionez, ez eta zehazterik izan Sozietatearen Urteko kontuetan erregistraturik dagoen kopurua doitu behar den.

Epaitegi honen iritzira, aurrez azaldutako salbuespena salbuetsita eta 2016ko Aurrekontuaren Likidazioan jasotako 1. oharrean azaldutakoa aintzat hartuta, Arabako Lurralde Historikoa osatzen duten erakundeen kontuek (Ikus I. Sarrera) alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2016ko aurrekontu-ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.

Bestelako auziak:

AFaren Diputatuen Kontseilua da Fernando Buesa Arena, SA sozietatearen akziodun bakar eta haren kapital soziala osatzen duten akzio guztien titular; Kontseiluak 2017ko apirilaren 25ean onartu zituen sozietatearen likidatzaileek aurkeztutako likidazio-balantzea, memoria eta likidazio-eragiketen txostena, zeinak guztira 47.672 euroren aktiboa eta ondare garbia erakusten duen, pasibo eskagarririk izan gabe; berebat, likidazio-kuota oso-osorik (47.672 euro) Arabako Foru Aldundiari esleitzea onartu zuen. 2017ko ekainaren 26an aipatutako erabakia eskritura publikoan jaso zen, Merkataritza Erregistroan erregistratzeko ondorioetarako. 2017ko urriaren 24an Merkataritza Erregistroaren Aldizkari Ofizialean eman zen argitara desegitea, 2017ko irailaren 27ko datarekin jaso.

III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO GOGOETAK

Atal honek besarkatzen ditu bai ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten hutsak, bai prozedurazko alderdiak ere, kudeaketa hobetzeko azaleratu ditugunak.

III.1 ZERGA SARRERAK

- AFAk eskuz kudeatzen ditu egoera berezietan emandako geroratze eta zatikapenak, geroratze kontua, errekurritutako zerga-zorra eta ordaindu gabeko zorra Derrigorrezko diru-bilketa agentziara igortzea. Kudeaketa-informazioaren kalitatea hobetu behar luke prozesuak automatizatu eta diru-bilketa zerbitzuak emandako informazioa kontabilitatean jasoz.
- Araudiak araututako epeaz haratagoko zatikapenak eta gerorapenak azaleratu zaizkigu (11 eta 6 hilabetekoak, hurrenez hurren):

	Euroak, milioikotan	
	ZENBATEKOA	EPEA
156/2016 DKE	6,2 (*)	3 urte
157/2016 DKE	12,5 (**)	10 urte
748/2016 FAg.....	8,3 (***)	2 urte
(*) Aurreko ekitaldietan birfinantzatutako zorra Kopuru honetatik, 1,8 milioi euro premiamenduan zegoen zorra zen.		
(**) Aurreko ekitaldietan birfinantzatutako zorra Kopuru honetatik, 12,4 milioi euro premiamenduan zegoen zorra zen.		
(***) Premiamenduan dagoen zorra, aurreko ekitaldietan birfinantzatutako zena.		

AFAk prozeduraren bat garatu behar luke Zerga Foru Arau Orokorrean aurreikusitako baldintza bereziak ezartzeko.

III.2 LANGILERIA

- Naturgolf, SAK aldi baterako lan kontratupeko langileak hautatzeko prozesua gauzatu du eta ez du eskatu balioztatu beharreko ezaugarriren bat formalki egiaztatzeko.



III.3 KONTRATAZIOA

2016an AFAk 17,2 milioi euroan esleitutako 13 espedienteren lagina aztertu dugu eta aurreko urteetan esleitutako beste espediente batzuen jarraipena egin dugu, 2016an 20,7 milioi euroren egikaritza izan dutenak (ikus A.8). Zera ikusi dugu:

- Guztira 1,8 milioi euroren zenbatekoan esleitutako hiru espedientetan (6, 7 eta 13), lizitazio iragarkiak ez ditu zehazten kontratua esleitzeko irizpideak, ezta dagokion haztapena ere.
- Guztira 1,6 milioi euroren zenbatekoan esleitutako hiru espedientetan (2, 3 eta 13), esleipena gauzatu da bi hilabeteko epea gaindituta, proposamenak ireki direnetik aurrera kontatuta.
- Guztira 2,7 milioi euroren zenbatekoan esleitutako hiru espedientetan (1, 2 eta 13), kontratua formalizatzeko iragarkia argitaratu da 48 eguneko epea gaindituta, formalizazio datatik aurrera kontatuta.
- Guztira 5,3 milioi euroren zenbatekoan esleitu diren hiru obra espedientetan (10, 12 eta 13), kontratazio atalak onartu du kontratistak aurkeztutako lan-programa –obrak abiarazteko beharrezko egintza dena- kontratuan aurreikusitako 15 eguneko epea gaindituta.
- Lehenagoko ekitaldietan 1,7 milioi euroan esleitutako bi espedientetan (24 eta 25) kontratazio atalak egikaritutako lanen azken ziurtagiria onartu du hiru hilabeteko epea gaindituta, harrera datatik aurrera kontatuta, kontratuaren likidazioaren kontura kontratistari ordainduko zaiona.
- Obra ziurtagiriak edo emandako ondasun edo egindako zerbitzuen kontratuan erabakitakoarekiko adostasuna egiaztatzen duten ziurtagiriak onartu dira ondasunak egiaz entregatu edo zerbitzua eman eta hurrengo hogeita hamar egunak igaro ondoren honako espediente hauetan: 2016an esleitutako bost espedientetan (1, 4, 6, 8 eta 12) eta lehenagoko ekitaldietan esleitutako zortzi espedientetan (14, 15, 16, 17, 21, 24, 26 eta 27). Metatutako zenbatekoak 380.385 eurorenak eta 1,9 milioi eurorenak izan dira, hurrenez hurren.
- Prezioaren ordainketa egin da hogeita hamar egunak igaro ondoren obra ziurtagiriak edo emandako ondasun edo egindako zerbitzuen kontratuan erabakitakoarekiko adostasuna egiaztatzen duten ziurtagiriak onartu zirenetik, honako espediente hauetan: 2016an esleitutako zortzi espedientetan (3, 4, 5, 8, 9, 10, 12 eta 13) eta lehenagoko ekitaldietan esleitutako zortzi espedientetan (16, 17, 18, 19, 20, 21, 26 eta 27). Metatutako zenbatekoak 846.181 eurorenak eta 2,5 milioi eurorenak izan dira, hurrenez hurren.



Honako espediente hauek aztertu ditugu eta ondotik adierazitako ondorioak eskuratu ditugu: erakunde autonomoek 2016an 8,7 milioi euroren zenbatekoan formalizatutako zortzi espedienteren lagin bat; erakunde autonomoek aurreko urteetan esleitutako espedienteen jarraipena -2016an 512.271 euroren egikaritzea izan dutenak-; sozietate publikoek 2016an 4,8 milioi euroan esleitu edo luzatutako 20 espediente eta foru fundazioek 2016an 2,9 milioi euroan esleitu edo luzatutako 12 espediente (ikus A.10.3, A.11.2 eta A.13.2 eta A.14.2).

- GOFek zuzenean bi hornidura eta bost zerbitzu kontratatu ditu, guztira 192.165 euroren zenbatekoan, dagokion kontratazio espedientea izapidetu gabe; horretarako, eskaintzak egiteko eskatuta prozedura negoziatua baliatu behar zatekeen.
- GFEk 1,2 milioi euroan esleitutako bi espedienteren 81 eta 2) lizitazio iragarkiek ez dituzte jasotzen eskaintzak balioztatze irizpideak ez horien haztapena.
- GOFek 6,7 milioi euroan esleitutako hiru espedienteren formalizazioa (1, 3 eta 5) gauzatu da lehiatzaileei esleipenaren jakinarazpena igortzen denetik hamabost lanegun igaro baino lehenago.
- Ez dago jasota kontratugilearen profilean bi espedienteren esleipena argitaratu denik (1 eta 3), GFEk 1,2 milioi euroan esleitu zituenak.
- Atzerapenez onartu dira obra ziurtagiriak edo emandako ondasun edo egindako zerbitzuen kontratuan erabakitakoarekiko adostasuna egiaztatzen duten ziurtagiriak, izan ere ondasunak egiaz entregatu edo zerbitzua eman denetik hogeita hamar eguneko epea gainditu da hiru espedientetan (1, 2 eta 3), 2016an GFEk esleitu zituenak. Zenbateko metatuek 228.029 euro egin zituzten.
- Arabako Lanak, SA sozietateak zuzenean luzatzen du legezko aholkularitza emateko kontratu bat 2014ko urteaz geroztik. 14.400 euroan esleitu zen kontratuak urtebeteko epea jasotzen zuen, luzatzeko aukerarekin. Kontratu txikiaren luzapen hau ez dute baimentzen kontrataziorako barne arauak.
- Arabako Kalkulu Zentroa, SA sozietateak esleitutako 10 espedienterenak diren 10 faktura ordaindu dira, 232.529 euroren zenbatekoan; horiek, baina, ordaindu dira obra ziurtagiriak edo emandako ondasun edo egindako zerbitzuen kontratuan erabakitakoarekiko adostasuna egiaztatzen duten agiriak onartu eta hurrengo hogeita hamar egunak igaro ondoren.
- Añanako Gatz Harana Fundazioak zuzenean kontratatu ditu bi hornidura eta zerbitzu bat, guztira 77.379 euroren zenbatekoan; horietan, baina, prozedura erraztua eta lehiaketa baliatu behar zituzkeen, kontrataziorako barne aginpideek aurreikusten duten moduan.

III.4 DIRU-LAGUNTZAK

- GOFek elkarte bati emandako 183.672 euroren diru-laguntza izendunaren justifikazioak ez ditu eskatutako agiri guztiak jasotzen.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV. FINANTZA ANALISIA

AFAk 2015 eta 2016ko ekitaldietan kitatutako magnitude nagusiak honako hauek dira:

ARABAKO FORU ALDUNDIA	Euroak milakotan		
	2015	2016	BARIAZIOA 2016/2015
Sarrera arruntak	2.068.518	2.110.299	% 2,0
Zerga zuzenak eta zeharkakoak	2.035.903	2.083.045	
Tasak eta bestelako sarrerak	28.340	22.472	
Transferentzia arruntak	3.260	4.038	
Ondare sarrerak	1.015	744	
Erakundearteko konpromisoak	1.650.315	1.686.539	% 2,2
Estatuari kupoa	119.831	110.168	
Elri ekarpena	1.333.549	1.376.228	
Udalei ekarpena	196.935	200.143	
Sarrera arrunt garbiak	418.203	423.760	% 1,3
Gastu arruntak	289.714	298.091	% 2,9
Langileria-gastuak	60.042	60.308	
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak	46.807	48.071	
Finantza gastuak	13.195	11.509	
Transferentzia arruntak	169.670	178.203	
ERAGIKETA ARRUNTEN EMAITZA (1)	128.489	125.669	(% 2,2)
KAPITALEZKO ERAGIKETAK (2)	(62.391)	(41.334)	(% 33,8)
Inbertsio errealak besterentzea	75	6.664	
Kapital transferentziek eragindako sarrerak	3.288	6.638	
Inbertsio errealak	(28.575)	(31.845)	
Kapital transferentziak	(37.179)	(22.791)	
FINANTZAKETA ERAGIKETEN SALDOA (3)	2.134	(21.560)	(% 1.110,3)
Finantza aktiboen bariazio garbia	(14.126)	(21.537)	
Finantza pasiboen bariazio garbia	16.260	(23)	
EKITALDIAREN EMAITZA (1+2+3)	68.232	62.775	(% 8,0)
Aurreko ekitaldietako emaitza (4)	(95.206)	(33.278)	
Finantziazio-desbideratzeak (5)	(60)	53	
Doiketa finantzarioa (6)	(85.653)	(106.038)	
DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA (1+2+3+4+5+6)	(112.687)	(76.488)	(% 32,1)



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ERAGIKETA ARRUNTEN EMAITZA

2016ko ekitaldian likidatutako eragiketa arruntek eragindako emaitza % 2,3 murriztu da 2015ean kitatu zenarekiko, 128,5 milioi euro izatetik 125,7 milioi euro izatera aldatuz. Murrizketa honen arrazoia da, nagusiki, gastu arrunta, erakunde konpromisoak kenduta, % 2,9 hazi izana. Zehatzago esanda, transferentzia arruntek eragindako gastuak % 5 gehitu dira.

Erakunde konpromisoek eragindako gastua 36,2 milioi euroan gehitu da (% 2,2), itunpeko zergen diru-bilketa igo delako (% 2,2). Ekitaldi hauetan itunpeko zergen eta erakunde-konpromisoen diru-bilketa honakoa izan da:

	Euroak milakotan	
	2015	2016
DIRU-BILKETA	1.993.115	2.037.948
Estatuari kupoa	119.831	110.168
EJri ekarpena	1.333.549	1.376.228
TTEEen partaidetza tributuetan.....	196.935	200.143
ERAKUNDEARTEKO KONPROMISOAK	1.650.315	1.686.539
Diru-bilketaren g/%	% 82,8	% 82,8

KAPITAL ERAGIKETEN EMAITZA

Kapitalezko eragiketen emaitza negatiboa da 41,3 milioi euroan, nahiz 21,1 milioi euroan egin duen behera aurreko ekitaldikoaren aldean, nagusiki, toki entitateei egindako kapitalezko transferentziengatiko gastuak behera egin duelako (12,8 milioi euro).

FINANTZA ERAGIKETEN SALDOA

Finantzaketa eragiketen saldoa negatiboa da 2016an, zorpetze berria 7,3 milioi euro txikiagoa delako eta ekitaldiko amortizazioa 8,9 handiagoa, 2015ekoaren aldean.

AURREKO EKITALDIETAKO EMAITZA

Aurreko ekitaldietako emaitzen bariazioa gertatu da 2016ko ekitaldian eskubide gutxiago baliogabetu direlako 2015arekiko (25,8 milioi euro) eta FEPELen horniduran hobekuntza izan delako (38 milioi euro).

DIRUZAINNTZA GELDIKINA ETA ZORPETZEA

- 2016ko abenduaren 31n Diruzaintza Geldikinak (121,6 milioi euro) gairitu egiten du 9,2 milioi euroan 2015eko abenduaren 31ko geldikina (112,4 milioi euro) izan zena).
- 2016ko ekitaldian BFAk beste zorpetze bat baliatu du 44,9 milioi euroren zenbatekoduna. 2016ko abenduaren 31n AFAREN aurrekontuko zorpetzea 2015eko abenduaren 31koaren pareko da.



- Sozietate publikoen zorpetzea jasotzen badugu, zorpetzeagatiko saldoa 6,3 milioi euroan murrizten da (% 1).

	Euroak milakotan	
	2015	2016
AFAren aurrekontuaren zorpetzea	515.370	515.346
Arabako Lanak, SAren zorpetzea	597	-
Arabako Bideak, SAren zorpetzea	103.771	100.607
Araba Garapen Agentzia, SAren zorpetzea	25.409	23.271
Indesa 2010, Slren zorpetzea	2.744	2.322
GUZTIRA	647.891	641.546

ONDORIOA

- AEFILOk 3. eta 4. artikuluetan administrazio publikoei ezargarriak zaizkien aurrekontu egonkortasun eta finantza iraunkortasunaren printzipioak ezartzen ditu, aurrekontuan oreka edo egiturazko superabit egoera modura ulertzen direnak eta oraingo eta etorkizuneko gastu konpromisoak finantzatzeko gaitasun modura, defizitaren eta zor publikoaren mugaketen barruan.

Kontu Orokorrean jasotako Aurrekontuaren Egonkortasun eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzko txostena Estatuko Administrazioaren Artekiritza Nagusiari eta Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independenteari igorri zitzairen eta horiek ez dute salbuespenik adierazi.

- 2016ko ekitaldi itxieran finantza egoera 2015eko ekitaldi itxierakoaren parekoa da. Diruzaintza Geldikina 2015ean 112,4 milioi eurorena izatetik 2015ean 121,6 milioi eurorena izatera aldatu da eta AFAk erregistraturiko zorpetzea, berriz, 2015ean 515,4 milioi eurorena izatetik 2016an 515,3 milioi eurorena izatera aldatu da.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

V.1 ARABAKO FORU ALDUNDIAREN KONTUAK

A. 2016-KO EKITALDIKO AURREKONTU ARRUNTAREN LIKIDAZIOA Euroak milakotan

SARRERAK	HASIERAKO			AZKEN. AURREK.	ESKUBIDE KITATUAK	DIRU-BILK. GARBIA	KOB.R. GABEA
	ERANSK.	AURREK.	ALDAK.				
1.- Zerga zuzenak	A.5	939.625	-	939.625	949.950	915.954	33.996
2.- Zeharkako zergak	A.5	1.150.978	-	1.150.978	1.133.095	988.782	144.313
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	A.5	18.001	272	18.273	22.472	14.648	7.824
4.- Transferentzia arruntak	A.6	102.171	1.020	103.191	100.218	99.813	405
5.- Finantza sarrerak		783	-	783	744	488	256
6.- Inbertsio errealean besterentzea		5.997	-	5.997	6.664	6.483	181
7.- Kapitaleko transferentziak	A.6	4.878	1.834	6.712	6.638	6.023	615
8.- Finantza aktiboen aldaketa	A.7	14.161	12.708	26.869	156	155	1
9.- Finantza aktiboen bariazioa		45.873	5.400	51.273	44.900	44.900	-
SARRERAK GUZTIRA		2.282.467	21.234	2.303.701	2.264.837	2.077.246	187.591

Euroak milakotan

GASTUAK	HASIERAKO			AZKEN. AURREK.	OBLIGAZ. LIKIDOAK	ORDAINK. LIKIDOAK	ORDAIN. GABEA
	ERANSK.	AURREK.	ALDAK.				
1.- Langileen ordainsariak	A.3	62.546	(66)	62.480	60.308	60.292	16
2.- Ondasun arrunt eta zerbit. kontr.....		46.003	4.249	50.252	48.071	40.040	8.031
3.- Finantza gastuak.....		14.543	(110)	14.433	11.509	11.023	486
4.- Transferentzia arruntak.....	A.4	2.023.165	(858)	2.022.307	1.960.922	1.948.928	11.994
6.- Inbertsio errealak		38.604	(497)	38.107	31.845	20.148	11.697
7.- Kapitalezko transferentziak	A.4	43.008	6.337	49.345	22.791	11.947	10.844
8.- Finantza aktiboen bariazioa	A.7	15.075	6.779	21.854	21.693	21.164	529
9.- Finantza pasiboen bariazioa		39.523	5.400	44.923	44.923	44.923	-
GASTUAK GUZTIRA		2.282.467	21.234	2.303.701	2.202.062	2.158.465	43.597

SARRERAK - GASTUAK **-** **-** **-** **62.775** **(81.219)** **143.994**

B. AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	HASIERAKO		KOB.R./ ORDAINK.	AZKEN ZORRA
	ZORRA	BALIOGAB.		
Zordunak	355.379	(37.278)	(123.666)	194.435
Hartzekodunak	(44.206)	157	43.824	(225)
GUZTIRA	311.173	(37.121)	(79.842)	194.210

2016-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOARI JARRITAKO OHARRA

Oharra.- 2010eko uztailaren 20ko Diputatuen Kontseiluaren Erabaki bidez onartutako hitzarmenaren indarrez, Eusko Jaurlaritzak ordaindutako diru-sarrerak erregistratu dira, 16.700.000 euroren zenbatekoan, Fernando Buesa Arena pabiloia handitzeko lanetarako; lan horiek Araba Garapen Agentzia, SAUK gauzatu ditu. 2011ko maiatzaren 17ko 290 Diputatuen Kontseiluaren Erabaki bidez erabaki zen kopuru hori Araba Garapen Agentzia, SAUri ematea; 2016ko ekitaldi itxieran, sozietateari eskualdatzeko daude 3.987.334,25 euro. Kopuru hori ez da 2016ko abenduaren 31ko Diruzaintzaren Geldikinetik murriztu eta Kontingentzia legezko eta judizialeterako Erreserben atal da.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

C. ZORPETZEAREN KONTU OROKORRA		Euroak milakotan
Maileguak		465.346
Bonoak		50.000
GUZTIRA		515.346

D. DIRUZAINZA		Euroak milakotan
AURREKONTUKO DIRUZAINZA		
Saldoa, 16.1.1ean		172.444
Aurrekontu kobrantzak		2.200.912
Indarreko ekitaldia	2.077.246	
Aurrekontu itxiak	123.666	
Aurrekontuko ordainketak		(2.202.289)
Indarreko ekitaldia	(2.158.465)	
Aurrekontu itxiak	(43.824)	
AURREKONTUKO DIRUZAINZA 16.12.31-N		171.067
AURREKONTUZ KANPOKO DIRUZAINZA 16.12.31-N		(90.879)
DIRUZAINZA ERABILGARRIA GUZTIRA 16.12.31-N		80.188

E. KONPROMISO KREDITUAK		Euroak milakotan				
ETORKIZUNEN GASTUAK	ERANSK.	HASIERAKO KREDITUAK	ALDA- KETAK	ITXIERAKO KREDIT.	BAIMEND. KREDIT.	HITZARTU- TAKOAK
2.- Ondasun arrunt eta zerbitz. kontratazioa		204	12	216	105	67
4.- Transferentzia arruntak	A.4	1.500	1.000	2.500	214	214
6.- Inbertsio errealak		50.572	216	50.788	14.944	10.944
7.- Kapitaleko transferentziak	A.4	59.139	5.612	64.751	32.426	32.119
GUZTIRA		111.415	6.840	118.255	47.689	43.344
				2017. urtea		32.479
				2018. urtea		6.256
				2019. urtea		3.463
				2020. urtea		1.146



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

F. EKITALDIAREN EMAITZA ETA DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan
AURREKONTU ARRUNTA 2016	
Kitatutako eskubideak	2.264.837
Aitortutako obligazioak	(2.202.062)
AURREKONTU ARRUNTAREN SUPERABITA	62.775
EKITALDI ITXIAK	
Eskubide kitatuak baliogabetzea	(37.278)
Obligazio aitortuak baliogabetzea	157
AURREKONTU ITXIEN DEFIZITA	(37.121)
Kaudimengab. zuzkid. aldak.....	(542)
Horniduren bariazioa FEPEL	4.385
EKITALDIAREN EMAITZA	29.497
DIRUZAINZAKO GELDIKINA, 2015-12-31-N	198.044
(Elkarfinantzatutako proiektuen finantzaketaren desbideratzeak).....	53
DIRUZAINZAKO GELDIKINA, 16.12.31-N	227.594
(Finantzaren doiketa)	(106.038)
EGOKITUTAKO DIRUZAINZA GELDIKINA 16.12.31-N	121.556

DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintza	80.188
Aurrekontu arruntaren zordunak	187.591
Aurrekontu itxien zordunak	194.435
Aurrekontu arruntaren hartzekodunak	(43.597)
Aurrekontu itxietako hartzekodunak	(225)
Aurrekontuz kanpok. (zordunak hartzekodunetarik garbi)	90.879
Huts egindakoen hornidura	(252.384)
FEPELerako hornidura	(29.286)
(Elkarfinantzat. proiektuen finantzaketaren desbideratzea)	(7)
DIRUZAINZA GELDIKINA, 16.12.31-N	227.594
(Finantzaren doiketa)	(106.038)
EGOKITUTAKO DIRUZAINZA GELDIKINA 16.12.31-N	121.556



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

G. EGOERAREN BALANTZEAK 2016 eta 2015eko abenduaren 31n					Euroak milakotan	
AKTIBOA	ERANSKINA	2016	2015	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2016	2015
AKTIBO EZ-ARRUNTA		944.117	977.809	ONDARE GARBIA	516.049	530.455
Ibilgetu ukiezina.....		16.459	15.918	Ondarea	223.574	223.574
Ibilgetu materiala		719.903	750.213	Sortutako ondarea	290.321	306.438
Epe luz. finantza inbertsioak taldeko,.....				Balio aldaketagatiko doiketak		
talde-anitzeko eta elkart. entitateetan	A.7	163.026	154.837	(Estaldua eragiketak).....	(3.372)	(4.905)
Epe luz. finantza inbertsioak.....	A.7	44.729	56.841	Bestelako ondare gehikuntzak		
				emaitzetara egozteko zain	5.526	5.348
				PASIBO EZ ARRUNTA	468.990	502.624
				Epe luz. zuzkidurak.....	612	3.865
				E/luzeko zorrak	468.378	498.759
AKTIBO ARRUNTA		319.250	280.754	PASIBO ARRUNTA	278.328	225.484
Salgai dauden aktiboak		438	1.280	E/lab. zuzkidurak.....	134.962	116.386
Izakinak		2.968	-	Epe laburreko zorrak.....	63.193	42.408
Zord. eta kobratz. beste kontu batzuk		208.543	215.064	Hartz. eta ordaintz. b.kontu batz....	80.165	66.629
Epe lab. finantza inbert. taldeko,				Aldizkatzeagatiko doikuntzak.....	8	61
talde-anitzeko eta elkart. entitateetan		21.960	24.074			
Epe lab. finantza inbertsioak.....		5.153	3.268			
Eskud. eta best. aktibo likido baliokideak		80.188	37.068			
AKTIBOA, GUZTIRA		1.263.367	1.258.563	ONDARE GARBIA eta PASIBOA, GUZT.	1.263.367	1.258.563



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

H. ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUAK, 2016 eta 2015	Euroak milakotan	
	2016	2015
Zerga sarrerak	2.039.777	2.012.927
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	133.808	102.827
Ekitaldiko transferentziak	133.385	101.315
Ibilgetu ez finantzariako diru-laguntzen egozpena	423	1.512
Salmenta garbiak eta zerbitzu egiteak	324	316
Kudeaketa arrunteko b. sarrera batzuk	12.696	2.496
Hornidura gehiegizkoak	3.378	3.499
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK, GUZTIRA	2.189.983	2.122.065
Langileria-gastuak	(60.428)	(60.042)
Transferentziak eta emandako diru-laguntzak	(2.037.219)	(1.982.548)
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	(53.919)	(52.995)
Ibilgetuaren amortizazioa	(43.549)	(43.257)
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK, GUZTIRA	(2.195.115)	(2.138.842)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	(5.132)	(16.777)
Balio nariadura eta ibilgetu ez finantzariora besterenganatzeagatik emaitzak eta aktiboak salgai	5.903	6.634
Arruntak ez diren beste kontu sail batz.	1.139	(43)
Diru sarrerak	1.220	785
Gastuak	(81)	(828)
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK	1.910	(10.186)
Finantza sarrerak	20	382
Finantza gastuak	(8.597)	(11.093)
Finantza-aktibo eta -pasiboetako arrazoizko balioaren aldakuntza	(1.911)	(2.150)
Balioaren nariadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak	(10.470)	(33.157)
Taldeko, talde-anitzeko eta elkartutako entitateetakoak	(18.748)	(27.430)
Beste batzuk	8.278	(5.727)
FINANTZA ERAGIKETEN EMAITZAK	(20.958)	(46.018)
EKITALDIAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA) GARBIA (GALERAK)	(19.048)	(56.204)



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.2 ERAKUNDE AUTONOMOEN KONTUAK

A. 2016-KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

	GOFÉ			GFE			AFS		
	AZKEN. AURREK.	KITAT. ESKUBID.	DIRUBILK. GARBIA	AZKEN. AURREK.	KITAT. ESKUBID.	DIRUBILK. GARBIA	AZKEN. AURREK.	KITAT. ESKUBID.	DIRUBILK. GARBIA
SARRERAK									
3.-Tasak eta bestelako sarrerak	22.398	24.010	20.562	1.855	1.783	1.762	10	13	12
4.- Transferentzia arruntak.....	160.549	157.675	144.652	3.905	3.902	3.800	3.736	3.228	2.710
5.- Ondare sarrerak.....	1	-	-	-	-	-	-	-	-
7.- Kapital transferentziak.....	1.241	625	625	17	-	-	56	51	36
8.- Finantza aktiboen bariazioa...	235	77	77	10	6	6	17	-	-
AURREK. ARRUNTA GUZTIRA	184.424	182.387	165.916	5.787	5.691	5.568	3.819	3.292	2.758
HONDAKINAK	24.300	24.155	5.153	219	212	212	15	9	7
SARRERAK GUZTIRA	208.724	206.542	171.069	6.006	5.903	5.780	3.834	3.301	2.765

Euroak milakotan

	GOFÉ			GFE			AFS		
	AZKEN. AURREK.	OBLIGAZ. LIKID.	ORDAINK. LIKID.	AZKEN. AURREK.	OBLIGAZ. LIKID.	ORDAINK. LIKID.	AZKEN. AURREK.	OBLIGAZ. LIKID.	ORDAINK. LIKID.
GASTUAK									
1.- Langileen ordainsariak	67.540	67.540	65.353	2.475	2.429	2.429	2.958	2.459	2.456
2.- Ondas. arr. eta zerb. kontr.	79.536	77.916	69.969	2.661	2.650	2.526	189	175	60
4.- Transferentzia arruntak.....	35.872	35.244	34.445	625	600	513	599	598	-
6.- Inbertsio errealak.....	936	373	260	14	13	10	56	51	15
7.- Kapital transferentziak.....	305	250	200	-	-	-	-	-	-
8.- Finantza aktiboen bariazioa ...	235	78	78	12	-	-	17	-	-
AURREK. ARRUNTA GUZTIRA	184.424	181.401	170.305	5.787	5.692	5.478	3.819	3.283	2.531
HONDAKINAK	9.954	9.645	9.638	228	227	227	45	45	45
GASTUAK GUZTIRA	194.378	191.046	179.943	6.015	5.919	5.705	3.864	3.328	2.576

B. EKITALDIAREN EMAITZA ETA DIRUZAINZTA GELDIKINA

Euroak milakotan

	GOFÉ	GFE	AFS
Kitatutako eskubideak.....	182.387	5.691	3.292
Aitortutako obligazioak.....	(181.401)	(5.692)	(3.283)
AURREKONTU ARRUNTAREN SUPERABITA (1)	986	(1)	9
Eskubide kitatuak baliogabetzea.....	(145)	(7)	(6)
Obligazio aitortuak baliogabetzea	309	1	-
AURREKONTU ITXIEN DEFIZITA (2)	164	(6)	(6)
Kaudimengab. zuzkid. aldak. (3).....	(1.150)	7	-
EKITALDIAREN EMAITZA (1+2+3)	-	-	3
DIRUZAINZTA GELDIKINA, 15.12.31-N	3.850	-	2
DIRUZAINZTA GELDIKINA, 16.12.31-N	5.000	-	5
(Nekez egingarri diren eskubideak)	(5.000)	-	(2)
DIRUZAINZTAKO GELDIKIN ERABILGARRIA (2016-12-31)	-	-	3



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan		
	GOFE	GFE	AFS
Diruzaintza.....	603	384	511
Aurrekontu arruntaren zordunak.....	16.471	123	534
Aurrekontu itxien zordunak.....	19.002	-	2
Aurrekontu arruntaren hartzekodunak.....	(11.096)	(214)	(752)
Aurrekontu itxietako hartzekodunak.....	(7)	-	-
Aurrek. kanp. (hartzek. zordunetatik garbi).....	(19.973)	(293)	(290)
Huts egindakoen hornidura.....	(5.000)	-	(2)
DIRUZAINZAKO GELDIKIN ERABILGARRIA (2016-12-31)	-	-	3

C. EGOERAREN BALANTZEAK 2016 eta 2015ko abenduaren 31n Euroak milakotan

	GOFE		GFE		AFS
	2016	2015	2016	2015	2016
AKTIBO EZ-ARRUNTA	27.067	27.051	3.089	3.133	6.063
Ibilgetu ukiezina.....	2	4	38	50	154
Ibilgetu materiala.....	26.810	26.797	3.051	3.083	5.909
Epe luz. finantza inbertsioak.....	255	250	-	-	-
AKTIBO KORRONTEA	32.434	28.620	512	544	1.049
Zord. eta kobratz. beste kontu batzuk.....	31.018	25.780	123	212	538
Epe lab. finantza inbertsioak.....	813	1.911	5	11	-
Eskudirua eta beste aktibo likido baliokideak.....	603	929	384	321	511
AKTIBOA, GUZTIRA	59.501	55.671	3.601	3.677	7.112
ONDARE GARBIA	27.085	27.072	3.093	3.144	6.066
Ondarea.....	40.531	39.809	5.248	5.178	6.264
Sortutako ondarea.....	(13.596)	(12.887)	(2.155)	(2.034)	(219)
Balio aldaketagatiko doiketak.....	150	150	-	-	-
Bestelako ondare gehikuntzak.....	-	-	-	-	21
PASIBO EZ ARRUNTA	109	83	23	21	-
E/luzeko zorrak.....	109	83	23	21	-
PASIBO ARRUNTA	32.307	28.516	485	512	1.046
Zorrak epe laburrera taldeko, talde-anitzeko eta elkartutako entitateekin.....	17.537	14.810	-	-	1
Hartzekod. eta ordaintz. beste kontu batzuk.....	14.770	13.706	332	346	1.045
Aldizkatzeagatiko doikuntzak.....	-	-	153	166	-
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	59.501	55.671	3.601	3.677	7.112



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

D. 2016 eta 2015eko ekitaldietako ONDARE EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUAK Euroak milakotan

	GOFE		GFE		AFS
	2016	2015	2016	2015	2016
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak.....	158.239	152.766	3.902	4.134	3.273
Salmenta garbiak eta zerbitzu egiteak.....	22.023	20.683	1.774	1.718	12
Kudeaketa arrunteko beste sarrera batzuk	946	943	-	-	1
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK, GUZTIRA	181.208	174.392	5.676	5.852	3.286
Langileria-gastuak	(67.597)	(65.217)	(2.432)	(2.451)	(2.454)
Transferentziak eta emandako diru-laguntzak.....	(35.494)	(33.529)	(599)	(637)	(599)
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	(78.065)	(75.121)	(2.635)	(2.688)	(224)
Ibilgetuaren amortizazioa.....	(878)	(823)	(140)	(158)	(229)
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK, GUZTIRA	(182.034)	(174.690)	(5.806)	(5.934)	(3.506)
KUDEAK. ARR. EMAITZA (AURR. EDO AURREZKI-EZA)	(826)	(298)	(130)	(82)	(220)
Balio narriadura eta ibilgetu ez finantzarioa					
besterenganatzeagatiko emaitzak eta aktiboak salgai ..	-	(5)	-	-	-
Arruntak ez diren beste kontu sail batz.	1.350	260	2	-	-
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK	524	(43)	(128)	(82)	(220)
Balioaren narriadura, bajak eta finantza aktibo eta pasiboen besterentzeak.....	(1.295)	(734)	7	(6)	1
FINANTZA ERAGIKETEN EMAITZAK	(1.295)	(734)	7	(6)	1
EKIT. EMAIT. GARBIA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	(771)	(777)	(121)	(88)	(219)



V.3 SOZIETATE PUBLIKOEN KONTUAK

A. EGOERAREN BALANTZEAK 2016 eta 2015eko abenduaren 31n

Euroak milakotan

EGOERAREN BALANTZEA	AGA		Aldalur Araba		Arabako Lanak		Arabarri	
	2016	2015	2016	2015	2016	2015	2016	2015
AKTIBO EZ-ARRUNTA	81.519	89.427	58	60	489	255	1.568	1.570
Ibilgetu ukiezina.....	29	29	-	-	-	244	1.568	1.570
Ibilgetu materiala.....	19.796	23.027	-	60	-	7	-	-
Ibilgetuko inbertsioak.....	34.852	35.331	58	-	-	-	-	-
Tald. eta elkartut. enpresen inbert. epe luz.	24.762	28.487	-	-	487	-	-	-
Finantza inbertsioak epe luz.	2.080	2.553	-	-	2	4	-	-
AKTIBO ARRUNTA	31.705	32.037	21	14	96	1.437	781	850
Izakinak	22.899	22.866	-	-	-	-	652	779
Merkat. zordunak eta kobratz. beste knt. b.	684	616	-	-	64	696	60	2
Tald. eta elkartut. enpresen inbert. epe lab.	4.649	5.499	-	-	-	-	-	-
Finantza inbertsioak e/lab.....	2.797	771	-	-	-	-	-	-
Aldizkakotzeak e/lab.	200	25	-	-	1	6	-	-
Eskudirua eta best. aktibo likido baliokideak	476	2.260	21	14	31	735	69	69
AKTIBOA, GUZTIRA	113.224	121.464	79	74	585	1.692	2.349	2.420
ONDARE GARBIA	79.356	78.619	79	74	92	156	1.391	1.417
Kapitala	83.004	83.004	18	18	60	60	76	76
Jaulkipen prima.....	9.471	9.473	-	-	-	-	-	-
Erreserbak.....	1.376	1.490	(1)	(1)	2	2	8	8
Aurreko ekitaldietako emaitzak.....	(29.298)	(18.703)	-	(3)	(158)	(158)	(238)	(262)
Bazkideen beste ekarpen batzuk.....	1.236	1.243	5	5	894	886	-	-
Ekitaldiaren emaitza.....	(4.981)	(14.065)	(2)	(5)	(706)	(868)	(23)	25
Balio aldaketagatiko doiketak	-	-	-	-	-	-	-	-
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak....	18.548	16.177	59	60	-	234	1.568	1.570
PASIBO EZ ARRUNTA	21.200	27.032	-	-	98	86	701	213
E/luz. zuzkidurak.....	231	230	-	-	98	86	-	-
E/luzeko zorrak	20.969	23.259	-	-	-	-	-	-
Taldeko enpr. eta elkartuekiko zorrak epe luz.	-	3.543	-	-	-	-	701	213
PASIBO ARRUNTA	12.668	15.813	-	-	395	1.450	257	790
Epe laburreko zorrak.....	3.788	3.368	-	-	214	660	151	555
Taldeko enpr. eta elkartuekiko zorrak epe lab.	6.525	9.229	-	-	-	-	-	-
Merkataritz. zord. eta kobratz. beste kontu b.	2.355	3.216	-	-	181	790	106	235
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	113.224	121.464	79	74	585	1.692	2.349	2.420



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A. EGOERAREN BALANTZEAK 2016 eta 2015eko abenduaren 31n

Euroak milakotan

EGOERAREN BALANTZEA	Kalkulu Zentroa		F. Buesa Arena		Indesa 2010		Naturgolf		Arabako Bideak	
	2016	2015	2016	2015	2016	2015	2016	2015	2016	2015
AKTIBO EZ-ARRUNTA	103	97	-	-	10.778	11.069	1.058	1.251	171.800	174.363
lbilgetu ukiezina.....	-	-	-	-	78	48	9	-	137.263	141.259
lbilgetu materiala.....	-	-	-	-	10.678	10.999	1.043	1.245	53	58
Tald. & elkar. enpr. inber.e/luz.	102	88	-	-	22	22	6	6	-	-
Finantza inbertsioak epe luz.	1	9	-	-	-	-	-	-	34.484	33.046
AKTIBO ARRUNTA	3.389	2.440	48	64	3.563	5.513	128	94	5.324	2.713
Izakinak	-	-	-	-	138	124	19	16	-	-
Merk. Zord. eta kobr. bestel. knt.	2.336	2.375	-	-	2.821	3.189	59	39	1.046	528
Finantza inbertsioak e/lab.	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Aldizkakotzeak e/lab.	-	-	-	-	-	-	5	4	2	2
Eskud. eta b.akt. lik. baliokide batz....	1.053	65	48	64	604	2.200	45	35	4.276	2.183
AKTIBOA, GUZTIRA	3.492	2.537	48	64	14.341	16.582	1.186	1.345	177.124	177.076
ONDARE GARBIA	852	649	48	48	8.996	1.645	1.109	1.145	29.921	31.176
Kapitala	808	808	200	200	8.865	4.926	1.016	4.275	43.332	43.332
Erreserbak.....	3	3	-	-	-	-	5	5	6.757	6.813
Ekitaldi itxien emaitza	-	-	(136)	(148)	-	(2.762)	(65)	(3.190)	(1.508)	-
Bazkideen beste ekarpen batzuk	6.579	6.558	-	-	1.369	1.100	630	358	2.775	2.938
Ekitaldiaren emaitza.....	(6.580)	(6.762)	(1)	(4)	(1.399)	(1.803)	(622)	(492)	(2.205)	(4.446)
Ondare garbiaren beste baliab.batz.	-	-	(15)	-	-	-	-	-	-	-
Balio aldaketagatiko doiketak	-	-	-	-	-	-	-	-	(19.230)	(17.461)
Diru-lag., dohain. eta jasot. legat. ..	42	42	-	-	161	184	145	189	-	-
PASIBO EZ ARRUNTA	-	-	-	-	1.900	2.322	-	5	139.692	141.175
E/luz. zuzkidurak.....	-	-	-	-	-	-	-	-	888	755
E/luzeko zorrak	-	-	-	-	1.900	2.322	-	5	138.804	140.420
PASIBO ARRUNTA	2.640	1.888	-	16	3.445	12.615	77	195	7.511	4.725
Epe laburreko zuzkidurak.....	-	-	-	-	-	245	-	-	-	-
Epe laburreko zorrak.....	36	37	-	-	430	4.368	7	86	3.864	3.227
Tald. & elkart. enpr. zorrak e/lab.	1.000	-	-	-	2.394	7.544	-	-	-	-
Merk. hartzek. & ordain. best. kntu....	1.604	1.851	-	16	621	458	48	88	3.647	1.498
Aldizkakotzeak e/lab.	-	-	-	-	-	-	22	21	-	-
ONDARE GARB.&PASIB. GUZT.	3.492	2.537	48	64	14.341	16.582	1.186	1.345	177.124	177.076



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

B. 2016 eta 2015eko ekitaldietako GALERA ETA IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

	AGA		Aldalur Araba		Arabako Lanak		Arabarri	
	2016	2015	2016	2015	2016	2015	2016	2015
Negozio zifratik zenbateko garbia	-	999	-	-	14	145	128	-
Amait. eta abian dauden produk. izakinetan bariatz.....	-	(2.994)	-	-	-	-	(127)	(69)
Enpresak aktiborako egindako lanak	-	2.120	-	-	-	-	-	-
Hornidurak	(12)	(18)	-	-	-	-	(2)	(1)
Bestelako ustiaketa sarrerak	1.510	1.101	-	-	(16)	(4)	(4)	114
Langileria-gastuak	(528)	(504)	-	-	(545)	(762)	-	-
Bestelako ustiaketa gastuak	(1.692)	(10.190)	(2)	(5)	(137)	(241)	(7)	2
Ibilgetuaren amortizazioa	(3.731)	(3.550)	(2)	(3)	(38)	(44)	(2)	(28)
Ibilg.ez finantz. eta bestel. diru-lag. egoztea	2.367	2.297	2	3	234	40	2	28
Ibilgetua besterenganatz. narriadura eta emaitza	407	(802)	-	-	(214)	-	-	-
USTIAKETAREN EMAITZA	(1.679)	(11.541)	(2)	(5)	(702)	(866)	(12)	46
EMAITZA FINANTZARIOA	(3.302)	(2.524)	-	-	(4)	(2)	(11)	(21)
EMAITZA ZERGA AURRETIK	(4.981)	(14.065)	(2)	(5)	(706)	(868)	(23)	25
Mozkinen gaineko zerga.....	-	-	-	-	-	-	-	-
EKITALDIAREN EMAITZA	(4.981)	(14.065)	(2)	(5)	(706)	(868)	(23)	25

B. 2016 eta 2015eko ekitaldietako GALERA ETA IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

	Kalkulu Zentroa		F. Buesa Arena		Indesa 2010		Naturgolf		Arabako Bideak	
	2016	2015	2016	2015	2016	2015	2016	2015	2016	2015
Negozio zifratik zenbateko garbia	4.510	4.292	-	-	11.558	11.250	424	436	7.344	6.526
Izakinen bariatzioa amaitut. eta indarreko prod. ..	-	-	-	-	15	11	-	-	-	-
Hornidurak	(4.447)	(4.226)	-	-	(1.623)	(1.668)	(10)	(9)	-	-
Bestelako ustiaketa sarrerak	-	-	-	-	3.312	3.286	117	80	2	-
Langileria-gastuak	(6.580)	(6.790)	-	-	(11.580)	(11.529)	(254)	(210)	(204)	(175)
Bestelako ustiaketa gastuak	(76)	(38)	(4)	(4)	(2.432)	(2.426)	(740)	(636)	(3.735)	(3.716)
Ibilgetuaren amortizazioa	-	-	-	-	(629)	(588)	(128)	(139)	(4.102)	(4.017)
Ibilg.ez finantz. eta bestel. diru-lag. egoztea.....	-	-	-	-	23	20	44	45	-	-
Ibilgetua besterenganatzeagatikoko narriadura eta emaitza	-	-	-	-	1	(95)	(75)	(57)	70	-
USTIAKETAREN EMAITZA	(6.593)	(6.762)	(4)	(4)	(1.355)	(1.739)	(622)	(490)	(625)	(1.382)
EMAITZA FINANTZARIOA	13	-	3	-	(44)	(64)	(1)	(2)	(1.580)	(3.064)
EMAITZA ZERGA AURRETIK	(6.580)	(6.762)	(1)	(4)	(1.399)	(1.803)	(623)	(492)	(2.205)	(4.446)
Mozkinen gaineko zerga.....	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
EKITALDIAREN EMAITZA	(6.580)	(6.762)	(1)	(4)	(1.399)	(1.803)	(623)	(492)	(2.205)	(4.446)



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.4 FORU FUNDAZIOEN KONTUAK

A. EGOERAREN BALANTZEAK 2016 eta 2015eko abenduaren 31n

Euroak milakotan

	Artium		Kirolaraba		Sta. Maria Katedrala		Añanako	
	2016	2015	2016	2015	2016	2015	2016	2015
EGOERAREN BALANTZEA								
AKTIBO EZ-ARRUNTA	56.700	51.799	-	-	14.107	13.591	4.781	4.548
Ibilgetu ukiezina.....	2.939	2.748	-	-	20	4	99	36
Ondare historikoko ondasunak	37.996	32.855	-	-	-	-	4.404	4.376
Ibilgetu materiala	15.764	16.195	-	-	14.087	13.587	276	136
Tald. eta elkartut. enpresen inbert. epe luz.	-	1	-	-	-	-	-	-
Finantza inbertsioak epe luz.	1	-	-	-	-	-	2	-
AKTIBO ARRUNTA	535	603	105	64	544	941	840	656
Izakinak	168	173	-	-	67	78	90	67
Jarduera propioaren erabiltz. eta best. zordunak ..	112	272	64	27	21	18	-	-
Merkat. zordunak eta kobratz. beste knt. b.	79	90	-	-	373	397	293	298
Tald. eta elkartut. enpresen inbert. epe lab.	-	-	-	-	-	10	-	-
Finantza inbertsioak e/lab.....	-	-	-	-	14	-	-	-
Aldizkakotzeak e/lab.	26	40	-	-	3	6	-	8
Eskudirua eta bestelako aktibo baliokideak	150	28	41	37	66	432	457	283
AKTIBOA, GUZTIRA	57.235	52.402	105	64	14.651	14.532	5.621	5.204
ONDARE GARBIA	56.524	51.660	90	63	14.466	14.361	5.302	4.983
Fundazioaren zuzkidura/Gizart funtsa	180	180	30	30	129	129	51	51
Erreserbak.....	-	-	-	-	-	-	-	-
Aurreko ekitaldietako soberakinak	(311)	(324)	5	5	-	-	-	-
Ekitaldiaren soberakina	(20)	13	(9)	-	-	-	-	-
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak....	56.675	51.791	64	28	14.337	14.232	5.251	4.932
PASIBO ARRUNTA	711	742	15	1	185	171	319	221
Epe laburreko zorrak.....	2	120	-	-	88	97	12	11
Taldeko enpr. eta elkartuekiko zorrak epe lab.	200	-	-	1	-	-	-	-
Onuradunak-Hartzekodunak.....	-	-	15	-	-	-	-	-
Merkataritz. zord. eta kobratz. beste kontu b.	509	622	-	-	97	74	307	210
Aldizkakotzeak e/lab.	-	-	-	-	-	-	-	-
ONDARE GARB. & PASIB. GUZT.	57.235	52.402	105	64	14.651	14.532	5.621	5.204



B. 2016 eta 2015eko ekitaldietako GALERA ETA IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

	Añanako							
	Artium		Kirolaraba		Sta.Maria Katedrala		Gatz Harana	
	2016	2015	2016	2015	2016	2015	2016	2015
Berezko jardueraren sarrerak.....	3.205	3.218	493	490	1.220	1.069	478	420
Salmentak eta merkat. jardueraren best. sarrerak.....	174	170	-	-	18	4	767	734
Laguntza eta bestelakoengatik gastuak.....	-	-	(464)	(324)	-	-	-	-
Amaitut. eta abian diren produk. izakin. aldak.	(17)	(17)	-	-	-	-	(17)	18
Entitateak aktiborako egindako lanak	-	-	-	-	-	-	-	-
Hornidurak	(15)	(24)	(20)	(97)	(14)	(7)	(225)	(176)
Jardueraren bestelako sarrerak.....	86	217	-	-	1	6	-	-
Langileria-gastuak.....	(1.114)	(1.092)	-	-	(384)	(343)	(174)	(180)
Jardueraren beste gastu batzuk.....	(2.352)	(2.503)	(17)	(69)	(841)	(729)	(829)	(816)
Ibilgetuaren amortizazioa.....	(2.238)	(2.416)	(1)	(1)	(623)	(575)	(308)	(42)
Kapital diru-lagunt., dohaintz. eta legatuak								
ekitaldiaren soberakinera aldatuak.....	2.560	2.437	1	1	623	575	308	256
Gehiegizko hornidurak.....	-	51	-	-	-	-	-	-
Ibilgetua besterenganatz. narriadura eta emaitza	(322)	(30)	-	-	-	-	-	(214)
Beste emaitza batzuk.....	14	2	-	-	-	-	-	-
JARDUERAREN SOBERAKINA	(19)	13	(8)	-	-	-	-	-
FINANTZA ERAGIKETEN SOBERAKINA	(1)	-	-	-	-	-	-	-
Mozkinen gaineko zerga.....	-	-	-	-	-	-	-	-
EKITALDIAREN SOBERAKINA	(20)	13	(8)	-	-	-	-	-
Ondare garbian jasotako sarrera eta gastuak	7.084	2.726	464	494	1.310	1.364	1.065	1.011
Ekitaldiaren soberakinari egindako birsailk.	(2.623)	(2.944)	(464)	(486)	(1.206)	(1.036)	(745)	(640)
Ondare garbiaren bariazioa	4.461	(218)	-	8	104	328	320	371
Bestelako bariazioak	-	(311)	-	-	-	-	-	-
EMAITZA GUZT., ONDAREAREN BARIAZIOA	4.441	(516)	(8)	8	104	328	320	371





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ERANSKINAK

A.1 ARAUDI APLIKAGARRIA

Hona hemen 2016ko ekitaldian kudeaketa ekonomikoa eta urteko kontuen formulazioa arautzen buru egiten duten arauak:

- 53/1992 FA, abenduaren 18koa, Arabako Lurralde Historikoko ekonomia eta aurrekontuzko erregimenaz.
- 21/2015 FA, abenduaren 23koa, Arabako Lurralde Historikoaren 2016rako aurrekontua gauzatzeari buruzkoa.
- 75/2012 FD, abenduaren 18koa, Kontabilitate Publikoko Foru Plan Orokorra onartzen duena.
- 52/1992 FA, abenduaren 18koa, AFaren Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzkoa.
- 5/1988 FA, otsailaren 23koa, ALHren Ondareari buruzkoa.
- 48/1994 FD, maiatzaren 10ekoa, ALHren Diru-bilketa Erregelamendu Orokorra onartzen duena.
- 6/2005 FA orokorra, otsailaren 28koa, Arabako Zergei buruzkoa.
- 3/1997 FA, otsailaren 7koa, ALHko diru-laguntzei eta transferentziei buruzkoa.
- 11/2016 FA, urriaren 19koa, ALHko diru-laguntzei buruzkoa, aurrekoa baliogabetzen duena.

A.2 AURREKONTUKO ALDAKETAK

Hona hemen 2016ko ekitaldian egindako aldaketan xehapena:

KAPITULUAK	GASTU KAPITULUEN ARABERAKO AURREKONTU ALDAKETAK							AZKEN AURREK.
	HASIER. KREDITUA	KRED. OSAGAR.	BAJAK BALIOG.	TRANSFERENTZIAK JATOR. NORAKOA	ATXIKITAKO FINANTZ. GASTUAK	TXERTA-KETAK		
1. Langileen ordainsariak	62.546	-	-	(3.281)	3.215	-	-	62.480
2. Ondasun arr. eta zerb. erosc.	46.003	-	-	(4.187)	7.844	592	-	50.252
3. Finantza gastuak	14.543	-	-	(386)	276	-	-	14.433
4. Transferentzia arruntak	2.023.165	1.288	(37)	(11.488)	8.879	500	-	2.022.307
GASTU ARRUNTAK	2.146.257	1.288	(37)	(19.342)	20.214	1.092	-	2.149.472
6. Inbertsio errealak	38.604	185	(40)	(13.821)	12.685	494	-	38.107
7. Kapital transferentziak	43.008	7.348	(258)	(9.591)	8.090	-	748	49.345
KAPITALEZKO GASTUAK	81.612	7.533	(298)	(23.412)	20.775	494	748	87.452
8. Finantza aktiboen bariazioa	15.075	5.014	-	(279)	2.044	-	-	21.854
9. Finantza-pasiboen bariazioa	39.523	5.400	-	-	-	-	-	44.923
FINANTZAKETA GASTUAK	54.598	10.414	-	(279)	2.044	-	-	66.777
GASTUAK GUZTIRA	2.282.467	19.235	(335)	(43.033)	43.033	1.586	748	2.303.701



A.3 LANGILEEN ORDAINSARIAK

Hona hemen AFAko langileria-gastuen eta plantillaren xehapena, kontzeptuka:

	Euroak milakotan		PLANTILLA 12.31-N	
	2016	2015	2016	2015
Goi kargudunak eta b.-behineko langileak.....	2.718	2.440	39	38
Karrerako funtzionarioak eta bitartekoak	41.273	39.404	874(*)	874
Programako bitartekoak	2.587	1.999	35	26
Ordainsariak berreskuratzeko funtsa 2012	-	1.597	-	-
Gizarte Segurantza	10.643	11.518	-	-
Elkarkidetza	762	776	-	-
Langile aktiboen gizarte prestazioak	1.968	1.921	-	-
Langile pasiboen gizarte prestazioak	357	387	-	-
GUZTIRA	60.308	60.042	948	938

(*) 274 bitarteko funtzionarioak dira.

A.4 TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZA ARRUNT ETA KAPITALEZKOAK

Hona hemen ekitaldian aitortutako eta gauzatzeko dagoen erabilitako gastuaren xehakapena; baita, datozen ekitaldietarako erabilitako konpromisoena ere:

KONZEPOTUA	Euroak milakotan			
	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK		KAPITALEZKO TRANSFERENTZIAK	
	GASTUA 2016	ETORKIZUNEKO KONPROMISOAK	GASTUA 2016	ETORKIZUNEKO E-A KONPROMISOAK
ERAKUNDEARTEKO KONPROMISOAK	1.782.719	-	491	-
Batzar Nagusiak.....	5.900	-	-	-
Erakundeak, Sozietate Publikoak eta Fundazioak .	153.101	-	6.748	-
Toki Erakundeak.....	6.058	-	7.988	18.326
Beste batzuk.....	571	-	579	2.511
SEKTORE PUBLIKOA	165.630	-	15.315	18.326
Enpresa pribatuak.....	5.550	105	5.167	-
Irabazi asmorik gabeko famil. eta erak.....	6.900	109	1.791	-
Beste batzuk.....	123	-	27	-
SEKTORE PRIBATUA	12.573	214	6.985	-
GUZTIRA	1.960.922	214	22.791	18.326

E: Gastu erabilia

A: Gastu aitortua

A.4.1 ERAKUNDE KONPROMISOAK

Hona hemen Estatuari, EAERI eta Arabako udalerriei egindako ekarpenak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	GASTUAK		SARRERAK	
	2016	2015	2016	2015
Ekitaldiaren konturako kupoa.....	145.031	155.634	27.525	28.594
Aurreko ekitaldiko kupoa likidatzea.....	1.381	1.454	8.719	8.663
ESTATUARI KUPOA	146.412	157.088	36.244	37.257
Ekarpn orokorra	1.347.243	1.312.409	-	-
Ekarpn espezifikoak.....	83.469	74.219	-	-
Doiketa funts orokorra	5.075	4.376	59.507	57.381
Inbertsio Estrategikoen Funtsa	-	-	52	74
Gizarte Zerbitzuen Erakundearteko Funtsa	491	-	1.644	-
EAE-RI EKARPENAK	1.436.278	1.391.004	61.203	57.455
FOFEL	197.956	186.584	-	-
FOFEL estatuko laguntzen banaketa	792	246	-	-
FOFELen likidazioa.....	1.395	7.101	-	-
Udalen partaidetza zerga ez itunpekoetan.....	377	365	377	365
Toki entitateei aparteko ekarpena	-	3.004	-	-
UDALEI EKARPENAK	200.520	197.300	377	365
ERAKUNDEARTEKO KONPROMISOAK	1.783.210	1.745.392	97.824	95.077

Kupoa kalkulatzean izan diren desadostasunen ondorioz, atxikipenak gertatzen dira finantza fluxuetan. 2016ko abenduaren 31n egoera honako da:

- AFAk 98,2 milioi euro erregistratu ditu 2016ko ekitaldi itxieran zuzkitu gabeko kobratzeko dagoen sarrera modura, Estatuak atxikitako zenbatekoaren BEZaren doiketetatik dagozkionak, 599,8 milioi egin dituenak.
- GOFek “Transferentzia arruntek eragindako sarrerak” kapituluari 9,3 milioi euroren zenbatekoa erregistratu du, Autonomiari eta Mendekotasunari Arreta emateko Sistemaren bermatutako gutxieneko babes mailaren finantzaketa kontzeptuan, 2016ko urteari dagokiona. Kontzeptu honen pean 23,3 milioi euroren saldoa dago kobratzeko 2016ko abenduaren 31n, zuzkitu gabe dagoena. AFAk laguntza honen funtsak jaso eta GOFera aldatu ohi ditu; 2017ko martxoaren 28an Diputatuen Kontseiluaren Erabaki bidez Diruzaintza Geldikin doiturako erreserba bat onartu du, kopuru berekoa.



A.5 SARRERAK, ZERGA ZORDUNAK ETA HORNIDURAK

Hona hemen ekitaldi itxieran aitortutako sarrerak eta jasotako zenbatekoak, bai aurrekontu arruntarenak, bai aurrekontu itxiarenak:

	ESKUBIDE AITORTUAK 2016	Euroak milakotan DIRU-BILKETA 2016		
		2016	AURREKO EKIT.	GUZTIRA
ZERGA ZUZENAK				
Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga	754.258	729.451	17.329	746.780
Sozietateen gaineko zerga	155.407	147.894	4.972	152.866
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	7.915	7.141	167	7.308
Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga	11.799	10.966	269	11.235
Ondarearen gaineko aparteko zerga	17.455	17.431	-	17.431
Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga	74	29	5.235	5.264
Kreditu entitateetako gordailuen gaineko zerga	3.042	3.042	-	3.042
1. KAPITULUA GUZTIRA	949.950	915.954	27.972	943.926
ZEHARKAKO ZERGAK				
Ondare-eskualdaketen eta egin. jurid. dokument. g. zerga	19.618	18.548	407	18.955
Balio erantsiaren gaineko zerga.....	871.155	728.750	92.610	821.360
Zerga bereziak	232.620	231.829	22	231.851
Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zerga	218	171	4	175
Joko jardueren gaineko zerga	1.358	1.358	-	1.358
Aseguru sarien gaineko zerga eta beste	8.126	8.126	9	8.135
2. KAPITULUA GUZTIRA	1.133.095	988.782	93.052	1.081.834
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK				
Jokoaren gaineko tasa	6.434	6.394	498	6.892
Gainkarguak	1.694	1.694	-	1.694
Berandutza interesak eta zehapenak	9.127	2.972	632	3.604
Beste sarrera batzuk (gerorapen kontua).....	799	-	-	-
3. KAPITULUA GUZTIRA ITUNPEKOAK	18.054	11.060	1.130	12.190
ITUNPEKO SARRERAK/KOBRANTZAK GUZTIRA	2.101.099	1.915.796	122.154	2.037.950
ITUNDU GABEKO SARRERAK	4.418	3.588	382	3.970
1, 2 eta 3 KAPITULUETAKO SARRERAK GUZTIRA	2.105.517	1.919.384	122.536	2.041.920



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Egoeraren balantzeko “Kudeaketa eragiketengatiko zordunak” idazpuruak honako kontzeptu hauek jasotzen ditu:

	Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	31.12.16	31.12.15
Aurrekontuko zordunak (*).....	401.657	372.137
Kaudimengab. zuzkid.	(272.015)	(268.599)
KUDEAKETA ERAGIKETENGATIKO ZORDUNAK GUZTIRA	129.642	103.538

(*) Epe laburrera geroraturiko etorkizuneko zorra barne hartzen du, 19,6 milioi eurorena, aurrekontuan erregistratu gabea.

Hona hemen aurrekontuko zordunen edo epe laburrera geroraturiko zorra duten zordunen eta kaudimengabeziatarako zuzkiduraren xehapena 2016ko abenduaren 31n:

	Euroak milakotan			
	AURREK.ARRUNT. ZORDUNAK	AURREK.ITX. ZORDUNAK	EKIT.ARRUN. ZUZKID.	EKIT.ITXIEN ZUZKID.
Zerga zuzenak	33.995	58.216		
Zeharkako zergak	144.313	106.554		
Jokoaren gaineko tasak	40	252		
Berand. inter., gainkarg., zehap., gerorap. eta beste	6.956	25.950		
Itunpeko zergen zordunak	185.304	190.972	67.550	180.808
Epe lab. geroraturiko etorkiz. zorra (*)	19.631	-	19.631	-
Itundu gabeko zergen zordunak	830	1.544	564	1.544
ZERGA ZORDUNAK	205.765	192.516	87.745	182.352
Ecoembes Hitzarmena	310	-	-	-
Araztegien hitzarmena.....	53	-	-	-
Udaletako katastroaren mantentze-lanak	37	-	-	-
Bestelako zordun txikiagoak	5	-	-	-
TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	405	-	-	-
ONDARE SARRERAK	256	368	-	368
INBERTSIO ERREALEN BESTERENTZEA	181	8	-	8
AGA hitzarmena, Los Llanos, N-1.....	-	1.503	-	1.503
Toki Entit. hitzarmenak, obren finantz. eta mandatuak	546	39	-	39
Bestelako txikiago batzuk	69	-	-	-
KAPITAL TRANSFERENTZIAK	615	1.542	-	1.542
GUZTIRA	207.222	194.434	87.745	184.270

(*) Aurrekontuan erregistratu gabeko zenbatekoak.



A.6 TRANSFERENTZIA ETA DIRU-LAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

Transferentzia eta diru-laguntza arrunt eta kapitalezkoek eragindako sarreraren xehapena honakoa da:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	2016		2015	
	ARRUN.	KAPITALEZK.	ARRUN.	KAPITALEZK.
FEDER.....	17	2.380	33	-
FEAGA. FEOGA. FEADER.....	1.054	1.237	849	1.624
EGF	77	-	-	-
Beste batzuk.....	33	99	-	181
EBrenak	1.181	3.716	882	1.805
Aurreko ekitaldietako kupoaren likidazioa (A.4.1).....	8.719	-	8.663	-
Ekitaldiaren konturako kupoa (A.4.1).....	27.525	-	28.594	-
Itunpekoak ez diren zergetan partaidetza	414	-	401	-
Beste transferentzia batzuk.....	-	354	-	-
Estatuarenak	36.658	354	37.658	-
Doiketa Funts Orokorra (A.4.1).....	59.507	-	57.380	-
Lanbideren enplegu programak	500	-	-	-
Inbertsio funts estrategikoen banaketa (A.4.1).....	52	-	74	-
Ecoembes Hitzarmena	1.844	-	1.603	-
Azpiegitura sanitario eta gizarte zerbitzuetarako funtsa	-	1.644	-	-
Beste txikiago batzuk.....	34	-	52	-
EAEnak	61.937	1.644	59.109	-
Katastroa mantentzea.....	163	-	327	-
Beste txikiago batzuk.....	279	860	290	1.154
ALHrenak	442	860	617	1.154
Irabazi asmorik gabeko erakundeenak	-	64	71	329
GUZTIRA	100.218	6.638	98.337	3.288

EBren diru-sarrerak berrikusi egiten dituzte eta honenbestez, ez dira behin betikoak berrikusketa gauzatu arte.

Fernando Buesa Arena, SA pabiloia handiagotzeko lanak finantzatzeko Diputatuen Kontseiluaren Erabaki bidez 2010eko uztailaren 20an onartutako hitzarmenaren indarrez, AFAk 16,7 milioi euro eskuratu ditu Eusko Jaurlaritzarengandik aurreko ekitaldietan. Lanak Araba Garapen Agentzia, SAUK gauzatu ditu. 2011ko maiatzaren 17ko DKE bidez onartu zen EJrengandik eskuratzen ziren diru kopuruak Araba Garapen Agentzia, SAUri ekartzea. 2016ko abenduaren 31n AFAk 12,7 milioi euroren gastuak erregistratu ditu Araba Garapen Agentzia, SAUri egindako eskualdaketengatik eta beste 4 milioi euro ditu sozietateari eskualdatzeko. Kopuru hau AFAREN ondare kontabilitatean erregistratu da, baina ez da 2016ko abenduaren 31ko Diruzaintza Geldikinetik murriztu; inguruabar horren berri eman da ekitaldi horretako Aurrekontuaren Likidazioan (ikus 2016ko Aurrekontuaren likidazioaren 1. oharra).



A.7 FINANTZA INBERTSIOAK EPE LUZERA ETA FINANTZA AKTIBOAK

Hona hemen 2016an “Finantza aktiboen bariazioa” gastuen kapituluan aitortutako obligazioak:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	2016
Galerak berdintzeko sozietate publikoei egindako ekarpenak	19.370
Galerak berdintzeko partaidetutako beste sozietate batzuei egindako ekarp.	100
Partaidetutako sozietatearen kapitala handiagotzea	122
Langileei aurrerakinak	102
Itzultzeko aurrerakinak sozietatei	1.999
GUZTIRA	21.693

Hona hemen epe luzerako Finantza ibilgetuaren mugimendua:

	Euroak milakotan				
DESKRIBAPENA	SALDOA 15.12.31	SARR. AURREK.	GASTUEN 8. KAP.	BESTEL. MUGIM.	SALDOA 16.12.31
Talde, talde anitz eta elkartutako erakundeetan					
epe luz. finantza inbertsioak	154.837	(1)	19.470	(11.280)	163.026
Zuzen.publikoko entitat. ondareko finantza inber.	30.216	-	-	5.491	35.707
GOFeri atxikipenean emandako ondasunak	38.267	-	-	723	38.990
GFeri atxikipenean emandako ondasunak	4.605	-	-	70	4.675
AFSri atxikipenean emandako ondasunak	-	-	-	5.528	5.528
Balioaren narriadura	(12.656)	-	-	(830)	(13.486)
Soz.publ. eta taldeko beste b. ondarean finan.inberts.	121.012	(1)	19.470	(14.110)	126.371
Foru soziet. publik. epe luzeko partaidetza.....	144.719	(1)	19.470	(19.317)	144.871
Partzuergoetan epe luzeko partaidetza	30.109	-	-	-	30.109
Balioaren narriadura	(53.816)	-	-	5.207	(48.609)
Kredituak eta zorraren balio adierazgarriak	3.609	-	-	(2.661)	948
Finantza inbertsioak epe luz.	56.841	(16)	122	(12.218)	44.729
Finantza inbertsioak ondarean	6.017	-	122	58	6.197
Epe luzeko partaidetza beste entitate batzuetan	7.295	-	122	-	7.417
Balioaren narriadura	(1.278)	-	-	58	(1.220)
Kredituak eta zorraren balio adierazgarriak	50.824	(16)	-	(12.276)	38.532
FEPEL.....	33.671	-	-	(2.990)	30.681
Páganosko administrazio-batzarrari epe luz. kredit.....	80	(3)	-	-	77
Partaidetzazko mailegua KSA bati.....	5.446	-	-	-	5.446
Proiektu estrategikoet. aparteko prog. maileguak	11.054	(13)	-	(9.203)	1.838
Ibilgetua besterentzeagatik epe luzeko kredituak.....	573	-	-	(36)	537
Urte 1etik gorako iraungip. zatikapena geroratzea	69.639	-	-	(34.686)	34.953
Epe luz. kredituent. kaugimengabez. zuzkid.	(69.639)	-	-	34.639	(35.000)
GUZTIRA	211.678	(17)	19.592	(23.498)	207.755
Langileei aurrerakinak		(139)	102		
Itzultzeko maileguen aurrerakinak sozietate publikoei			1.999		
8. KAPITULUA FINANTZA AKTIBOEN BARIAZIOA GUZTIRA		(156)	21.693		

Lehenagoko ekitaldietan bost partzuergori egindako ondasunen lagapen doakoak, 30,1 milioi eurorenak, epe luzeko finantza inbertsioetan erregistratu ziren; ordea, emaitzetara egotzi behar ziratekeen eta honenbestez, 2016ko abenduaren 31ko funts propioak 6,3 milioi euroan murriztu behar dira, narriadura kenduta.

A.8 ADMINISTRAZIOKO KONTRATAZIOA

27 espediente aztertu dira: 13, 2016ko ekitaldian gauzatutakoak eta 14, aurreko ekitaldietan esleitutakoak, 2016an egikaritu edo eragina izan dutenak.

Hona hemen 2016ko ekitaldiko 13 espedienteak:

ESP.		Euroak milakotan					
ZK.	DESKRIBAPENA	MOTA	PROZED.	ZENBAT.	ESLEIPEN 2016		AKATSAK
				EKIT.	ASKOT.		
DIPUTATU NAGUSIA							
1.	Foru eraikinen zaintza eta segurtasuna	Zrb.	Irekia	1.171(*)	503	-	B2, C3
LURRALDE OREKA (GARAPEN EKONOMIKOA)							
2.	Auto-eskailera mekanikodun ibilgailua erostea AEA	H	Irekia	668	-	668	B1,2
3.	Suteak aurreik. eta itzaltz. zerb. kudeak. inform. sistema erostea	H	Irekia	119	106	13	B1, C4
OGASUNA, FINANTZAK ETA AURREKONTUAK							
4.	Auditoria informatikoko aplikatibo informatikoa	M	NPG	1.185	395	790	C3,4
ENPLEGU SUSTAPENA, MERKATARITZA, TURISMOA ETA FORU ADMINISTRAZIOA							
5.	Posta zerb. ematea AFari eta derrig. diru-bilk. erak. kudeatzaileari	Zrb.	Irekia	1.924(*)	181	-	C4
6.	Ibilgailuak, lur orotakoak eta furgonetaren horn. I, II eta III sortak ..	H	Irekia	206	206	-	A1, C3
7.	Alet programa euskaraz gaitzeko, euskarazko eskolak	Zrb.	Irekia	695(*)	53	-	A1
NEKAZARITZA							
8.	Animalien osasun zerbitzua	Zrb.	Irekia	2.941(*)	135	-	C3,4
BIDE AZPIEGITURAK ETA MUGIKORTASUNA							
9.	Errepideen foru sarean errodadura geruza konpondu eta birjarri ...	O	Irekia	1.569	1.717	-	C4
10.	a-3218 PK 71,54/77,84 errep. traza. hobetu eta plataf. handitu ...	O	Irekia	3.286	1.000	2.286	C1,4
11.	A-2622 eta A-3308 errep. elkargunea berrantolatu eta hobetu	O	Irekia	1.509	1.492	17	
12.	Melledestik Manzanorako A-4340 errep. zabalgu proiekt. eta hob. ...	O	Irekia	1.126	303	823	C1,3,4
INGURUMENA ETA HIRIGINTZA							
13.	Gesaltza Añana eta Tuestako saneamendu hargailuen kolektiboa	O	Irekia	872	38	834	A1, B1,2, C1,4
GUZTIRA				17.271	6.129	5.431	

Kontratu motaren erreferentziak: M: Mistoa O: Obrak H: Hornidura Zrb.: Zerbitzuak

PGN: Publikotasunik gabeko negoziatua

(*) Aleko prezioetan esleitutako kontratuak dira Esleipen-zenbatekoan adierazten dugu balioetsitako esleipen prezioa edo hori ezean, pleguen arabera kontratuaren gehiengo aurrekontuaren zenbatekoa (BEZa barne).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Aurreko ekitaldietako 14 espedienteak honako hauek dira:

ESP. ZK. DESKRIBAPENA	JATORRI URTEA	ESLEIPEN ZENB.	Euroak milakotan			EGIKARITZA	AKATSAK
			15.12.31	2016	16.12.31		
OGASUNA, FINANTZAK ETA AURREKONTUAK							
14. Derrigorrezko aldian diru-bilketa kudeak. elkarren laguntza	2014	6.000	2.225	2.292	4.517		C3
15. ALHn ondasun higiezin katastroa gaurkotzea	2014	3.627	2.892	1.633	4.525		C3
2015eko espediente aldatua		33					
2016. Luzapena.....		1.634					
SUSTAPEN EKONOMIKOA ETA FORU ADMINISTRAZIOA							
16. AFaren eraikinen garbiketa.....	2013	2.819	4.339	1.532	5.871		C3,4
Prezioa merkatuz espediente aldatua 2014		(11)					
2015erako luzapena.....		1.532					
2016rako luzapena.....		1.532					
17. Aprobisionamendu eta euskarri integraleko zerbitzu globala	2013	3.150	1.596	719	2.315		C3,4
2014ko espediente aldatua		138					
HERRI-LANAK ETA GARRAIOA							
18. ALH ar-01 Araba zentr. herri arteko garraio zerb. kudeak.....	2015	11.047	167	931	1.098		C4
19. ar-02 Aiala herri arteko garraio zerb. kudeak.	2015	8.992	367	718	1.085		C4
20. ALH ar-03 Arabako Errioxako herri arteko garraio zerb. kudeak.....	2015	10.738	409	937	1.346		C4
21. Ekialdeko errepideen foru sarearen zaintza integrala 2013-2014	2012	7.247	10.870	3.624	14.494		C3,4
2015erako luzapena.....		3.624					
2016rako luzapena.....		3.624					
22. Mendebaldeko errepideen foru sarearen zaintza integrala 2013-2014 .	2012	7.247	10.870	3.624	14.494		
2015erako luzapena.....		3.624					
2016rako luzapena.....		3.624					
23. Ezkerraldeko eraikun. proiekt. a-3002 Bergara (Duranako igarobidea)	2015	551	505	46	551		
24. Artziniegan a-2602 eta a-4624 egokitu eta urbanizatzea	2015	1.282	-	1.282	1.282		C2,3
25. Lapueblan harkaitzen eroria saihest. a-4202 errep. babest. proi.....	2015	420	168	319	487		C2, D1
INGURUMENA ETA HIRIGINTZA							
26. Jundizko sailkaketa gunea ustiak. eta hondakinak bereiztea	2012						
Zerbitzuaren kudeaketa		15.000	4.714	1.972	7.146		C3,4
Hobekuntza lanak eta hornidurak		461	461	-	-		
ARKITEKTURA							
27. Laudion Musika Etxea zaharbertitzeko lanak	2015	842	58	1.115	1.173		C3,4, D1
GUZTIRA			39.641	20.744	60.384		



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

HUTSAK: DESKRIBAPENA	Euroak milakotan	
	ESPEDIENTE KOP.	ZENBATEKOA
A LIZITAZIOA		
A1 Lizitazio iragarkiak ez ditu kontratua esleitzeko irizpideak xehakutzen, ez eta dagokion haztapena ere SPKLTBren 150.2 art.	3	1.773
B ESLEIPENA		
B1 Bi hilabete baino gehiago igaro dira proposamenak ireki eta esleipena bitartean, SPKLTB 161 art.	3	1.659
B2 48 egun baino gehiago igaro dira formalizazio datatik argitaratu arte, SPKLTBren 154. art.	3	2.711
C EXEKUZIOA		
C1 Kontratazio atalak ez du lan programaren gaineko ebazpenik egin epe barruan	3	5.284
C2 Epea gainditu da obren azken ziurtagiria onartzeko, SPKLTBren 235.1 art.	2	1.702
C3 Ez betetzea obra ziurtagiriak onartzeko epea edo emandako ondasun edo betetako zerbitzuekiko adostasuna egiaztatzen duten agiriena, SPKLTBren 216. art.	13	
2016an 380.385 euroan formalizatutako espedienteen 14 faktura		
Aurreko ekitaldietan 1,9 milioi euroan formalizatutako espedienteen 20 faktura		
C4 Prezioa ordaintzean epea ez betetzea obra egiaztariak edo emandako ondasun edo zerbitzuekiko adostasuna egiaztatzen duten agiriak onartu zirenetik SPKLTBren 221.4 art.	16	
2016an 846.181 euroan formalizatutako espedienteen 10 faktura		
Aurreko ekitaldietan 2,5 milioi euroan formalizatutako espedienteen 24 faktura		
D BERARIAZKOAK		
D1 Bariazioak jasotzen ditu, kontratuaren jatorrizko prezioan % 10etik gorako gastu igoera eragiten duena, SPKLTBren 234.4 art. (DKE bidez baliokidetutako gastua)	2	1.262

Diputatuen Kontseiluak baliokidetutako espedienteak

Diputatuen Kontseiluak bere gain hartu du 2016ko ekitaldiko gastuen aldeko fiskalizazio juridiko-ekonomikoa, 557.792 euroren zenbatekoan, zeinaren gainean Kontu-hartzaitzak txosten negatiboa jaulki zuen:

SAILA	Euroak ZENBATEKOA
Ingurumena eta hirigintza	19.719
Bide azpiegiturak eta mugikortasuna	122.114
Enplegu sustapena, merkat., turismoa eta foru administrazioa	315.215
Gizarte ongizaterako foru erakundea	100.744
GUZTIRA	557.792

Kontu-hartzaitzak aurkako txostena egiteko arrazoi hauek izan zituen: kontratua aldatu gabe gastua handitzea (167.623 euro); publikotasun eta lehia printzipioak ez gordetzea (310.565 euro); eta bi hitzarmen aldatzea aurretik horretarako eskumena duen organoaren onespena jaso gabe (79.604 euro).



A.9 DIRU-LAGUNTZEN ANALISIA

A.9.1 DIRU-LAGUNTZA IZENDUNAK

Euroak milakotan

KONTZEPTUA	BALIATUTAKO	HITZARTUTAKO	AKATSAK
	ZENBATEKOA	KREDITUA	
TOKI ENTITATEAK	400	-	
Kuadrillei zergak diruz laguntzea (hiri hondakin solidoen isurk.)	400	-	-
AUTONOMIA ERKIDEGOAK	760	1.600	
Trenbide sarbidea finantzatzeko hitzarmena ARASUR	510	1.600	-
Gasteizko Arte eta Ogibideen Eskolari diru-laguntza	250	-	-
IRABAZI ASMORIK GABEKO FAMILIAK ETA ERAKUNDEAK	551	-	-
ABERE abeltzaintzako elkarrekin hitzarmena	551	-	-
ENPRESA PRIBATUAK	3.072	-	
Bidaiarien garraio publikoa finantzatzea (5 hitzarmen)	2.842	-	-
Garraio astunekoekin hitzarmena Altube A-68 bidesaria	230	-	-
GUZTIRA	4.783	1.600	

A.9.2 DEIALDI BIDEZ EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK

Euroak milakotan

KONTZEPTUA	BALIATUTAKO	HITZARTUTAKO	AKATSAK
	ZENBATEKOA	KREDITUA	
TOKI ENTITATEAK	20.882	15.141	
56/2016 DKE Obra eta Zerbitzuen Foru Plana 2016-2017	19.644	15.141	-
905/2016 DKE gizarte zerb. kartera erakundearteko funtsa Gasteizko Udala ..	1.238	-	-
ENPRESA PRIBATUAK	2.728	1.212	
761/2016 DKE Nekazari gazteek enpresak sortzea	1.200	510	-
815/2016 DKE Nekazal ustiaketatik inbertsioetarako laguntzak	1.528	702	-
IRABAZI ASMORIK GABEKO FAMILIAK ETA ERAKUNDEAK	1.029	431	
445/2016 DKE Eskola-kirola	571	-	-
907/2016 DKE, Ureztatzeak modernatzea	458	431	-
GUZTIRA	24.639	16.784	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.10. GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

A.10.1. LANGILEEN ORDAINSARIAK

Hona hemen GOFeko langileria-gastuen eta plantillaren xehapena, kontzeptuka:

	Euroak milakotan		PLANTILLA	
	2016	2015	2016	2015
Goi kargudunak	81	112	1	1
Funtzionarioak	52.038	48.356	1.738	1.642
Ordainsariak berreskuratzeko funtsa 2012	-	1.607	-	-
Gizarte Segurantzako eta Mufaceko kuotak ..	14.636	14.396	-	-
Elkarkidetza	552	518	-	-
Bestelako gizarte gastuak	233	228	-	-
GUZTIRA	67.540	65.217	1.739	1.643

A.10.2. TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

Egindako transferentzia eta diru-laguntza arrunten xehapena honakoa izan da:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	2016	2015
Gizarte Larrialdietarako Laguntzak	300	316
Oinarrizko gizarte-zerbitzuekin hitzarmenak	893	816
Bono Taxi programa	177	160
Bestelako txikiago batzuk	7	9
A Udalak eta Tokiko Enteak	1.377	1.301
Kotizatu gabekoen pentsio ez kontributiboak	7.381	6.917
Gizarte-ongizateko funtsaren pentsioak	417	407
LISMI pentsioa	86	94
Gizarte-larrialdien laguntza prestazioa gainerako probintzian	431	402
Norberaren autonomiarako laguntzak	264	232
Familia Ingurunean zaintzeko laguntzak	13.324	13.362
Zerbitzuari lotutako prestazio ekon. (egoitza pribat. egonaldiet. laguntzak)	7.674	6.648
Bestelako txikiago batzuk	1.732	1.670
Familiei	31.309	29.732
Deialdi publiko bidez emandako laguntzak	13	11
Gastu arruntetarako elkarrekin hitzarmenak	2.545	2.402
Irabazi asmorik gabeko elkarte eta erakundeei	2.558	2.413
GUZTIRA	35.244	33.446



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.10.3. ADMINISTRAZIOKO KONTRATAZIOA

2016ko ekitaldian esleitutako honako kontratu hauek aztertu dira:

Euroak milakotan					
ESP.			ESLEIPEN	EXEK.	
ZK. DESKRIBAPENA	MOTA	PROZED.	ZENB.	2016	AKATSAK
1. Genero indarkerian berariaz gaitutako arreta psikosoziala 1 sorta	Zrb.	Irekia	2.256	423	B3.
2. Ekipamendu orokor eta bereziturako hornitzaileak homologatzeko Marko akordioa, 4, 5 eta 6 sortak	H	Irekia	463	20	
3. Ibaia harrera eta larrialdi zentroa	Zrb.	Irekia	3.398	-	B3.
4. GOFeren Sallurtegi egoitzaren garbiketa Agurainen.....	Zrb.	NPG	64	64	
5. GOFeren Sallurtegi egoitzaren garbiketa Agurainen.....	Zrb.	Irekia	1.039	119	B3.
GUZTIRA			7.220	626	
Kontratu motaren erreferentziak	PGN: Publikotasunik gabeko negoziatua	H: Hornidura		Zrb.: Zerbitzuak	

Honez gain, ondotik zehaztutako kontratazio espedienteen luzapenen jarraipena eta azterketa egin da, lehenagoko urteetan esleitu zirenak eta aurrekontuko isla 2016an izan dutenena.

Euroak milakotan					
ESP.		JATORRI	ESLEIPEN	EXEK.	
ZK. DESKRIBAPENA		URTEA	ZENB.	2016	AKATSAK
6. Genero biktima diren emakumeei eta gizonezko erasotzaileei arreta psikologikoa, orientazio jurid. emakum		2006			
10. luzapena 16/01/01-16/03/31 aldia.....			129	129	
7. Adingabeko bat egoitzan hartzea, "Jado eraikinean" oinarritzko arretarako egoitza zentroan plaza baten bidez		2013			
Luzapena 16/09/25-17/09/25 aldia			46	12	
8. Egoitzetarako elikadura produktuak		2014			
Luzapena 16/07/02-18/07/01 aldia			774	94	
9. Egoitzetarako elikadura produktuak		2014			
Luzapena 16/12/18-18/12/17 aldia			128	1	
GUZTIRA			1.077	236	

AKATSAK DESKRIBAPENA	Euroak milakotan	
	ESPEDIENTE KOP.	ZENBATEKOA
B ESLEIPENA		
B3 Formalizazioa gauzatzen da lehiatzaileei esleipenaren jakinarazpena igorri eta hamabost lanegun igaro aurretik, SPKLTBren 156.3 art.....	3	6.693

2016an 262.324 euroren aldaketak egin dira GOFeren eta elkarte baten artean izenpetutako hitzarmenean, lagundu gabeko adingabe atzerritarrentzat egoitza harrerako programa bat kudeatzeko; eta 269.936 euroren aldaketak familian esku-hartzeko berariaz gaitutako programa kudeatzeko kontratuan, alde aurretik horretarako eskumena zuen

organoak onartu gabeak. Gastu hauek 2017ko martxoaren 21eko Diputatuen Kontseiluak baliokidetu ditu.

KONTRATU TXIKIAK

2016an egindako zenbait erosketa azaleratu zaizkigu, kontratu txiki modura izapidetu zirenak eta prozedura ireki edo negoziatu bidez izapidetu behar ziratekeenak:

DESKRIBAPENA	Euroak milakotan	
	ENPRESA KOP.	ZENBATEKOA
PROZEDURA IREKI BIDEZ IZAPIDETZEKO		
Kontsumoko osasun materiala	2	130
Garbiketa produktuak.....	3	159
GUZTIRA	5	289
PUBLIKOTASUNDUN PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZ IZAPIDETZEKO		
Posta eta zerga-zigilua	1	77
GUZTIRA	1	77
ESKAINTZAK ESKATUTA PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZ IZAPIDETZEKO		
Aholkularitza eta babes juridikoa	1	33
Makineria eta instalazioak konpondu eta zaintzea	1	30
Langileen janzki eta uniformeak.....	1	28
Podologia zerbitzua	1	28
Tresneria.....	1	28
Ile-apaindegi zerbitzua.....	1	25
Adingabeen zentroa kudeatzeko kontratua	1	20
GUZTIRA	7	192

A.11. GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

A.11.1. LANGILEEN ORDAINSARIAK

Hona hemen langileria-gastuen eta plantillaren xehapena, kontzeptuka:

	Euroak milakotan		PLANTILLA	
	2016	2015	2016	2015
Goi kargudunak	-	45	-	1
Lan kontratuko langile finkoak	919	935	27	27
Lan kontr. aldizk. lang. finkoak.....	170	196	9	11
Aldi-baterako lan kontr. langil.	679	602	10	8
Gizarte Segurantzako kuotak	555	559		
Bestelako gizarte gastuak	76	83		
Elkarkidetzak.....	30	30		
GUZTIRA	2.429	2.450	46	47



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.11.2. ADMINISTRAZIOKO KONTRATAZIOA

2016ko ekitaldian esleitutako honako kontratu hauek aztertu dira:

Euroak milakotan					
ESP.			ESLEIPEN	EXEK.	
ZK. DESKRIBAPENA	MOTA	PROZED.	ZENB.	2016	AKATSAK
1. Elikadura zerbitzua Isla 2016-2017	Zrb.	Irekia	1.030	296	A1, B4, C3
2. Udalekuak 2016 programa, 2 sorta Zuhatza	Zrb.	Irekia	193	193	A1, C3
3. Zuhatzako aterpetzeko elikadura 2016.....	Zrb.	NPG	219	219	B4, C3
GUZTIRA			1.442	708	
Kontratu motaren erreferentziak:		PGN: Publikotasunik gabeko negoziatua		Zrb.: Zerbitzuak	

Honez gain, ondotik zehaztutako kontratazio espedienteen luzapenen jarraipena eta azterketa egin da, lehenagoko urteetan esleitu zirenak eta aurrekontuko isla 2016an izan dutenena.

Euroak milakotan						
ESP.	JATORRI	ESLEIPEN	EXEK.			
ZK. DESKRIBAPENA	URTEA	ZENB.	15.12.31	2016	16.12.31	AKATSAK.
4. AGIDLZen mantentze-zerbitzua 2014-2015	2014	329	316	13	329	
2016-2017, luzapena	2016	329	-	165	165	
5. Hizkuntzan murgiltzea ingelesez 2015-2017.....	2015	204	31	97	128	
GUZTIRA		862	347	275	622	

HUTSAK: DESKRIBAPENA	Euroak milakotan	
	Expediente Kop.	Zenbatekoa
A LIZITAZIOA		
A1 Lizitazio iragarkiek ez dituzte barne hartzen eskaintzen balorazio irizpideak, SPKLTBren 150.2 art.	2	1.223
B ESLEIPENA		
B4 Ez da publikazioa kontratugilearen profilean jaso, SPKLTBren 151. art.	2	1.249
C EXEKUZIOA		
C3 Ez betetzea obra ziurtagiriak onartzeko epea edo emandako ondasun edo betetako zerbitzuekiko adostasuna egiaztatzen duten agiriena, SPKLTBren 216. art.	3	
- 2016an formalizatutako espedienteen 4 faktura, 228.029 eurorenak		



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.12 ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK

A.12.1 LANGILEEN ORDAINSARIAK

Hona hemen langile gastuen eta plantillaren xehapena, kontzeptuka:

	Euroak milakotan	PLANTILLA
	2016	2016
Soldatak eta ordainsariak	1.772	
Gizarte Segurantzarekiko Kuotak	652	
Beste gizarte-gastu batzuk	5	
Elkarkidetzak	30	
GUZTIRA	2.459	91

2016ko ekitaldian Erakunde Autonomoak plantillan txertatu du Aialako Su Itzaltze Partzuergotik eta Gasteizko Udalaren Suteak Itzaltzeko Eskualdeetako Unitateetatik datorren langileria.

A.13 FORU SOZIETATE PUBLIKOAK

A.13.1 LANGILERIA-GASTUAK

Hona hemen 2016ko abenduaren 31n foru sozietate publikoetan erregistraturiko enplegatu kopurua -langileria finkoa eta aldi baterakoa besarkatzen duena-, urtean zehar izandako bariazioa eta gastuak:

SOZIETATEA	Euroak milakotan					
	PLANTILLA			GASTUA		
	15.12.31	ALTAK	BAJAK	16.12.31	2016	2015
Araba Garapen Agentzia, SAU	7	2	-	9	528	504
Arabarri, S.A.	-	-	-	-	-	-
Naturgolf, S.A.	6	7	8	5	254	210
Arabako Kalkulu Zentroa, S.A.	109	-	3	106	6.580	6.790
Arabako Lanak, S.A.	12	-	12	-	545	762
Fernando Buesa Arena, S.A.	-	-	-	-	-	-
Arabako Bideak, S.A.	3	2	-	5	204	175
Aldalur Araba, S.L.	-	-	-	-	-	-
Indesa 2010, S.L.	771	19	13	777	11.580	11.529
GUZTIRA	908	30	36	902	19.691	19.970



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.13.2 KONTRATAZIOA

Arabarri S.A., Arabako Lanak, S.A., Fernando Buesa Arena, S.A. eta Aldalur Araba, S.L. sozietateek ez dute kontratu jarduerarik izan 2016ko ekitaldian.

2016ko ekitaldian esleitutako edo luzatutako honako kontratu hauek aztertu dira:

Euroak milakotan					
ESP.			ESLEIPEN	EXEK.	
ZK. ENTITATEA / DESKRIBAPENA	MOTA	PROZED.	ZENB.	2016	AKATSAK
ARABA GARAPEN AGENTZIA, SAU					
1. AGAk sustatutako industria poligonoetako HUA eta EUAen ustiaketa, zaintza eta mantentze-lanak	Zrb	Irekia	318	257	
2. AGAk sustatutako industria poligonoetako bide publikoen eta saneamendu sareen ustiaketa, zaintza eta mantentze-lanak	Zrb	Irekia	244	85	
3. Subillabideko industria poligonoko hondakin eta bulkadako uren ponpaketa guneko obra	O	Irekia	593	-	
4. Lur-berdintzea, Iruña Okan San José de los Llanos industria poligonoaren 2. sektoreko sistema orokorrerako lursailan	O	PN	207	-	
5. Izarra ikastetxe zaharraren instalazioetan zaintza eta segurtasun zerbitzua ematea	Zrb	Irekia	87	197	D1
ARABAKO KALKULU ZENTROA, SA					
6. AFAren "Egoitza Elektronikoa" informatikako aplikazioa mantentzea, 2016	Zrb	PGN	60	60	C4
7. AFAren Finantza eta Aurrekontuen alorreko informatika-aplikazioak mantentzea, 2016	Zrb	Irekia	129	129	C4
8. AFA, GOFE eta Indesako informatika-aplikazioak mantentzea	Zrb	Irekia	410	186	C4
9. SAP plataforman giza baliabideak kudeatzeko 2016rako Informatika-aplikazio bat garatzea datuak kudeatu eta bidaltzeko AFatik Diru-laguntzen Datu-base Nazionalera	Zrb	Irekia	51	51	
10. AFAk bideratutako errenta eta ondare zergan aitopen, likidazio eta kobr./itzulk. prozesuetan esku-hartzen duten funtzionalitateak ga ratzeko garapen informatikoak	Zrb	Irekia	139	69	
11. AFAn jasotako informazioa kudeatu eta prozesatzeko baliabide eta tresna berrien garapen informatikoak, erakunde laguntzaile eta beste administrazio batzuetatik informazioa eskuratu eta haiei bidaltzekoaz gain (*)	Zrb	PGN	440	224	
12. NETetik .EUSerako domeinu aldatetara aplikazioak egokitzea	Zrb	Irekia	116	116	C4
13. Informatika-aplikazio bat garatzea Araban eskola kirola kudeatzeko	Zrb	Irekia	61	41	C4
14. Herritarrei arreta emateko zerbitzualdiaren luzapena, AFAren egoitza elektronikoa eta web korporatiboaren erabilerari dagokionez sortutako arazo eta kontsultei erantzun emateko, 2015eko ekitaldirako	Zrb	Irekia	198	198	C4
15. AFAren eremu funtzionaleko informatikako aplikaz. mantentze lanen luzapena. 1. sorta: AFAren Ogasun, Nekaz. eta Ingurumeneko eremu funtzionalen aplikazio informatikoen mantentze-lana	Zrb.	Irekia	522	519	C4

.../...



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Euroak milakotan

ESP.	ZK. ENTITATEA / DESKRIBAPENA	MOTA	PROZED.	ESLEIPEN ZENB.	EXEK. 2016	AKATSAK
16.	AFaren eremu funtzionaleko informatikako aplikaz. mantentze lanen luzapena. 2. sorta: AFaren eta GFaren aplikazio informatikoen mantentze-lana, Ogasun, Nekaz. eta Ingurumeneko eremu funtzionaletakoak salbuetsita	Zrb.	Irekia	656	655	C4
17.	GOFeren aplikazio inform. mantentze-lanaren luzapena 2015erako .	Zrb.	Irekia	296	296	C4
18.	Arabako Toki Entitateetan erabiltzaileak artatzeko eta lanpostuan TI euskarriko zerbitzuaren prestazioa luzatzea 2015eko ekitaldirako, NATURGOLF, S.A.....	Zrb.	Irekia	59	59	C4
19.	Merkataritza plana ezartzeko laguntza teknikoa	Zrb.	Irekia	109	64	
ARABAKO BIDEAK, S.A.						
20.	Siloen hornidura eta instalazioa	H	Erraztua	85	85	
ESLEIPENAK ETA EGIKARITZAK GUZTIRA 2016				4.780	3.291	

Kontratu motaren laburtzapenak:

O: Obrak H: Hornidura Zrb.: Zerbitzuak PN: Publikotasundun negoziatua PGN: Publikotasunik gabeko negoziatua
(*) Publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez kontratazio espediente berria, SPKLTBren 170 c) artikulua babesean.

AKATSAK DESKRIBAPENA

Euroak milakotan

		ESPEDIENTE KOP.	ZENBAT.
C EXEKUZIOA			
C4.	Prezioa ordaintzean epea ez betetzea obra egiaztagiriak edo emandako ondasun edo zerbitzuekiko adostasuna egiaztatzen duten agiriak onartu zirenetik SPKLTBren 221.4 art.		10
- 10 espedienteren 10 faktura (espediente bakoitzeko bat), 232.529 euroren zenbatekoan			
D BERARIAZKOAK			
D1.	Esleipendunak zerbitzu hauengatik kontratua formalizatu aurretik (2016ko uztaila) ekitaldian 108.837 euroren zenbatekoa fakturatu zuen	1	87

KONTRATU TXIKIAK

- Arabako Lanak, SA sozietateak zuzenean luzatzen du legezko aholkularitza emateko kontratu bat 2014ko urteaz geroztik, kontratazioko barne arauak agindutakoaren aurka.
- Indesa 2010, SLk materialak hornitzeko kontratu zuzenak gauzatu ditu hamaika hornitzaileekin, 465.571 euroren zenbatekoan; horiek, baina, kontratazio prozeduretarik meneratuak behar zuketzen egon. Kontratazio hauek modu jarraitu eta errepikarian egiten dira Sozietateak jarduerari ekin zionez geroztik.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.14 FORU FUNDAZIOAK

A.14.1. LANGILERIA-GASTUAK

2016ko abenduaren 31n enplegatu finko eta aldi baterako kopurua, urtean zehar izandako bariazioa eta foru fundazioetan erregistraturiko gastuak honako hauek dira:

FUNDAZIOA	Euroak milakotan					
	PLANTILLA 31.12.15	ALTAK	BAJAK	PLANTILLA 31.12.16	GASTUA 2016	GASTUA 2015
Artium.....	23	1	1	23	1.114	1.092
Santa Maria katedrala.....	5	1	-	6	384	343
Añanako Gatz Harana.....	3	-	-	3	174	180
Kirolaraba.....	-	-	-	-	-	-
GUZTIRA	31	2	1	32	1.672	1.616

A.14.2. KONTRATAZIOA

2016ko ekitaldian esleitutako edo luzatutako 12 kontratu aztertu dira:

ESP. ZK. ENTITATEA / DESKRIBAPENA	MOTA	PROZED.	Euroak milakotan		
			ESLEIPEN ZENB.	EXEK. 2016	AKATSAK
ARTIUM					
1. Argindarra eta gasa.....	Zrb.	Irekia	997 (*)	174	
2. Prozesamendu tekniko eta bibliografia funtsen digitalizazioa.....	Zrb.	Irekia	64	44	
3. Bisita gidatuak eta jarduera didaktikoak.....	Zrb.	Irekia	677 (*)	34	
SANTA MARIA KATEDRALA					
4. Girolako Kaperaren gainean erlaitza egikaritzeko proiektua.....	O	Irekia	280	26	
5. Santa Maria Katedralaren goiburuko kriptak museo bihurtzeko diseinua, hornidura eta beharrezko argiteriaren muntaia.....	H	NPG	45	45	
AÑANAKO GATZ HARANA					
6. Añanako Gatz Haraneko kultura- eta ingurumen-paisaia berreskuratu eta zaintzeko lanak.....	Zrb.	Irekia	216	223	
7. Añanako Gatz Haranerako gatzta ontziratze zerbitzua.....	Zrb.	Irekia	130	203	A1, D1
8. Añanako Gatz Haranerako arreta turistiko emateko zerbitzua.....	Zrb.	Irekia	225	262	A1, D2
9. Añanako Gatz Haranaren gaineko esperientzia birtual baten sormena eta ekoizpena gauzatzeko zerbitzua.....	Zrb.	NPG	72	36	
10. Ekonomia eta finantza alorrean laguntza teknikoaren zerb. Luzatzea.....	Zrb.	NPG	68	68	
11. Deliniazio eta GIS lanetarako laguntza teknikoaren zerbitzua luzatzea.....	Zrb.	NPG	51	51	
12. Kulturaren eta komunikazioaren alorrean laguntza teknikoaren zerb. luzatzea.....	Zrb.	NPG	71	78	
ESLEIPENAK ETA EGIKARITZAK GUZTIRA 2016			2.896	1.244	

Kontratu motaren laburtzapenak: O: Obrak H: Hornidura Zrb Zerbitzuak PGN: Publikotasunik gabeko negoziatua
(*) Aleko prezioetan esleitutako kontratuak dira Esleipen-zenbatekoan adierazten dugu balioetsitako esleipen prezioa edo hori ezean, pleguen arabera kontratuaren gehiengo aurrekontuaren zenbatekoa (BEZa barne).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AKATSAK DESKRIBAPENA	Euroak milakotan	
	ESPEDIENTE KOP.	ZENBAT.
A LIZITAZIOA		
A1. Kontratuaren balioetsitako balioak ez ditu luzapenak jasotzen eta ez da DOUEn argitaratzen	2	355
D BERARIAZKOAK		
D1. Egikaritzaren % 56,17ko igoera	1	130
D2. Egikaritzaren % 16,25eko igoera	1	225

KONTRATU TXIKIAK

Añanako Gatz Harana Fundazioak kontratu txiki modura izapidetu ditu bi hornidura eta zerbitzu bat; horietan, baina, prozedura erraztua eta lehiaketa baliatu behar zituzkeen, kontrataziorako barne aginpideek aurreikusten duten moduan.

DESKRIBAPENA	Euroak milakotan	
	ENPRESA KOPURUA	ZENBATEKOA
ESKAINTZAK ESKATUTA PROZEDURA NEGOZIATU BIDEZ IZAPIDETZEKO		
Gatz-errota potoak	1	28
Mezularitza eta gatz-garraioa	1	26
Enbalajeak	1	23
GUZTIRA	3	77



A.15. ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU BATERATUAK

ALHren Kontu Bateratuak honako hauek dira:

SARRERAK	Euroak milakotan					
	AURREKONTUA			KITAT.	DIRU-BIL.	KOBR.
	HASIER.	ALDAT.	AZKENA	ESKUBID.	GARBIA	GABEA
1.- Zerga zuzenak	939.625	-	939.625	949.950	915.953	33.997
2.- Zeharkako zergak	1.150.978	-	1.150.978	1.133.095	988.782	144.313
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	42.254	275	42.529	48.265	36.972	11.293
4.- Transferentzia arruntak	118.758	1.034	119.792	114.362	100.935	13.427
5.- Ondare sarrerak	783	-	783	744	488	256
6.- Inbertsio errealak besterentzea	5.997	-	5.997	6.664	6.483	181
7.- Kapital transferentziak	4.878	1.834	6.712	6.638	6.023	615
8.- Finantza aktiboen bariazioa	14.406	12.716	27.122	239	238	1
9.- Finantza pasiboen bariazioa	45.873	5.400	51.273	44.900	44.900	-
SARRERAK GUZTIRA	2.323.552	21.259	2.344.811	2.304.857	2.100.774	204.083

GASTUAK	Euroak milakotan					
	AURREKONTUA			OBLIGAZ.	ORDAINK.	ORDAIN.
	HASIER.	ALDAT.	AZKENA	LIKIDOAK	LIKIDOAK	GABEA
1.- Langileen ordainsariak	130.512	3.054	133.566	131.306	129.101	2.205
2.- Ondasun arruntan eta zerb. kontratazioa.....	131.434	1.115	132.549	128.735	112.535	16.200
3.- Finantza gastuak.....	14.544	(110)	14.434	11.509	11.023	486
4.- Transferentzia arruntak.....	1.910.681	(900)	1.909.781	1.848.205	1.835.346	12.859
6.- Inbertsio errealak	39.810	(713)	39.097	32.268	20.417	11.851
7.- Kapital transferentziak	41.726	6.625	48.351	22.380	11.487	10.893
8.- Finantza aktiboen bariazioa	15.322	6.788	22.110	21.771	21.242	529
9.- Finantza pasiboen bariazioa	39.523	5.400	44.923	44.923	44.923	-
GASTUAK GUZTIRA	2.323.552	21.259	2.344.811	2.241.097	2.186.074	55.023
SARRERAK - GASTUAK	-	-	-	63.760	(85.300)	149.060

	Euroak milakotan			
	HASIERAKO		KOBR./	AZKEN
	ZORRA	BALIOGAB.	ORDAINK.	ZORRA
Zordunak	379.898	(37.430)	(129.031)	213.437
Hartzekodunak	(54.389)	467	53.689	(233)
GUZTIRA	325.509	(36.963)	(75.342)	213.204



C. EKITALDIAREN EMAITZA ETA DIRUZAINZTA GELDIKINA		Euroak milakotan
AURREKONTU ARRUNTA 2016		
Kitatutako eskubideak		2.304.857
Aitortutako obligazioak		(2.241.097)
AURREKONTU ARRUNTAREN SUPERABITA		63.760
EKITALDI ITXIAK		
Eskubide kitatuak baliogabetzea		(37.430)
Obligazio aitortuak baliogabetzea		467
EKITALDI ITXIEN DEFIZITA		(36.963)
Kaudimengab. zuzkid. aldak.		(1.685)
FEPEL erreserbaren hornidura bariazioa		4.385
EKITALDIAREN EMAITZA		29.497
DIRUZAINZTA GELDIKINA 15/12/31n (finantziazio desbideratzeak)		198.104
(Elkarfinantzatutako proiektuen finantzaketaren desbideratzeak)		(7)
DIRUZAINZTA GELDIKINA, 16.12.31-N		227.594
(Finantzaren doiketa)		(106.038)
DOITUTAKO DIRUZAINZTA GELDIKINA 16.12.31n		121.556

D. EGOERAREN BALANTZE KONSOLIDATUA			Euroak milakotan		
AKTIBOA	2016	2015	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2016	2015
AKTIBO EZ-ARRUNTA	1.054.941	1.102.962	ONDARE GARBIA	480.073	500.005
Ibilgetu ukiezina	155.600	159.123	Ondarea	256.304	242.384
Ibilgetu materiala	787.244	804.360	Sortutako ondarea	224.205	262.517
Ibilgetuko inbertsioak	34.909	35.391	Balio aldatetarikoko doiketak	(22.453)	(22.216)
Finantza inbertsioak e/luz.			Bestelako ondare gehikuntzak		
taldeko enpresa eta elkartuetan	1.997	11.386	emaitzetara egozteko zain	22.017	17.320
Finantza inbertsioak epe luz.	75.191	92.702			
AKTIBO ARRUNTA	384.770	337.003	PASIBO EZ-ARRUNTA	631.765	661.800
Salgai dauden aktiboak	438	1.281	Epe luzeko hornidurak	1.830	4.936
Izakinak	25.379	23.785	E/luzeko zorrak	630.182	656.717
Zord. eta kobratz. beste kontu batzuk		244.084	239.048 Taldeko erakunde eta elkartuekin		
Finantza inbertsioak e/lab.			epe luzeko zorrak	(247)	147
taldeko enpresa eta elkartuetan	18.401	22.869			
Epe lab. finantza inbertsioak	7.950	4.038	PASIBO ARRUNTA	327.873	278.160
Aldizkatzeagatikoko doikuntzak	208	38	E/lab. zuzkidurak	134.962	116.631
Eskud. eta bst. aktibo likido baliokide			Epe laburreko zorrak	71.683	62.864
batzuk (Diruzaintza)	88.310	45.944	Taldeko eta elkart. entitat. zorrak e/lab ...	18.431	19.019
			Hartzekod. eta ordaintz. bst kontu batz. .	102.614	79.398
			Aldizkatzeagatikoko doikuntzak	183	248
AKTIBOA, GUZTIRA	1.439.711	1.439.965	ONDARE GARB. ETA PASIB., GUZT.	1.439.711	1.439.965



E. ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTU BATERATUA	Euroak milakotan	
	2016	2015
Zerga sarrerak	2.039.777	2.012.927
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	149.571	111.364
Salmenta garbiak eta zerbitzu emateak	48.111	46.365
Amaitut. eta fabrikaz. dauden produk. izakinen bariazioa eta balioaren narriadura	(113)	(3.052)
Enpresak ibilgeturako egindako lanak	-	2.120
Kudeaketa arrunteko beste sarrera batzuk	8.700	(4.117)
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK, GUZTIRA	2.246.046	2.165.607
Langileria-gastuak	(152.603)	(147.680)
Transferentziak eta emandako diru-laguntzak	(1.917.794)	(1.865.901)
Hornidurak	(6.205)	(5.923)
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	(113.350)	(121.064)
Ibilgetuaren amortizazioa	(53.430)	(52.607)
Gehiegizko hornidurak	3.378	3.500
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK, GUZTIRA	(2.240.004)	(2.189.675)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	6.042	(24.068)
Balio narriadura eta ibilgetu ez finantzarioa		
bestereganatzeagatiko emaitzak eta aktiboak salgai	6.043	5.697
Arruntak ez diren beste kontu sail batz.	2.560	217
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK	14.645	(18.154)
Finantza sarrerak	115	499
Finantza gastuak	(11.016)	(14.050)
Finantza-aktibo eta -pasiboetako arrazoizko balioaren aldakuntza	(1.897)	(3.467)
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak	(14.377)	(35.415)
FINANTZA ERAGIKETEN EMAITZAK	(27.175)	(52.433)
EKITALDIAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA) GARBIA (GALERAK)	(12.530)	(70.587)





ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN 2016-KO KONTU OROKORRARI BURUZKO FISKALIZAZIO TXOSTENAREN INGURUKO ALEGAZIOAK

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. *Diputatuen Kontseiluak abenduaren 18ko 53/1992 FAren 125. artikuluan aurreikusitako aparteko prozedura bitartez, Ekonomia eta Aurrekontuen Araubideari buruzkoak, 2016ko ekitaldiko gastuak baliokidetu ditu 557.792 euroren zenbatekoan (457.048 euro AFarenak eta 100.744 euro GOFEnak); Artekaritzak, baina, baliokidetze horren aurkako txostena egin zuen. Honako hauek izan dira egindako ez-betetzeak: kontratua aldatu gabe gastua handitzea; publikotasun eta lehia printzipioak ez gordetzea; eta hitzarmenak aldatzea aurretik horretarako eskumena duen organoaren onespena jaso gabe (ikus A.8).*

ALEGAZIOA

Aurreko espedienteetan abenduaren 18ko 53/92 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko Ekonomia eta Aurrekontu Erregimenari buruzkoak, jasotako prozedurak xedatzen duenez jardun du Aldundiak, hirugarrenei kalteak saihesteko, barne kontroleko organoek kontratuei buruzko araudian ez betetzeak sumatu zituzten izapidea baliozkotuz.

2. *GOFek bi hornidura eta zerbitzu bat kontratatu ditu guztira 365.309 euroren zenbatekoan, ezargarriak zaizkion prozedura ireki edo publikotasundun negoziatua saihestuta (ikus A.10.3).*

GOFek 262.324 euroren zenbatekoan aldatu du hitzarmen bat eta 269.936 euroan kontratu bat, horretarako eskumena duen organoak aurretik onetsi gabe (ikus A.10.3).

ALEGAZIOA

Esaten denez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak alde batera utzi ditu lau hornidura eta lau zerbitzuren kontratazioan, guztira 365.309 eurokoan, aplikatu behar ziren prozedura irekia eta/edo publikitatez negoziatutakoa, eta ezin da adierazpen horrekin bat etorri, ez behintzat Herri Kontuen Euskal Epaitegiak adierazitako kasu guztietan.

Garbiketa produktuen horniduren kasuan, zelulosa produktuen hornidura gehitu da, 130.032,93 eurokoa; izan ere, 2016an prozedura ireki bitartez deitu zen kontratazio espediente baten xedearen barruan zegoen hornidura hori eta hutsik geratu zen. Egoera hori ez zen aurretik sumatu eta kontratazio organoen jarduketa ahalmenetik kanpo dago, zeinaren ondorioz Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ezin izan zuen hornidura horren gastuari egoki aurre egiteko kontraturik indarrean jarri. Horri dagokionez, kontuan hartu behar da hornidura hori ezinbestekoa zela erakunde autonomo horrek bere eskumeneko



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

laguntza zerbitzuak era egokian emateko. Hori dela eta, ezin zitzaion haiek gauzatzeari utzi kontratuei buruzko araudi aplikagarriaren arabera esleitutako kontratu berria edukitzeko unera arte.

Bigarren paragrafoan aipatzen diren aldaketei dagokienez, abenduaren 18ko 53/92 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko Ekonomia eta Aurrekontu Erregimenari buruzkoak, jasotako prozedurak xedatzen duenez jardun du Aldundiak, hirugarrenei kalteak saihesteko, barne kontroleko organoek lankidetzaz hitzarmenean bertan edo kontratuei buruzko araudian ez betetzeak sumatu zituzten izapidea baliozkotuz.

3. Araba Garapen Agentzia, SAUk zerbitzu bat kontratatu du 108.837 euroren zenbatekoan eta Indesa 2010, SLk hamaika hornidura kontratatu ditu 899.052 euroren zenbatekoan, publikotasun eta lehia printzipioak gorde gabe (ikus A.13.2).

ALEGAZIOA

Araba Garapen Agentzia SAREN kasuan, Izarra ikastetxeko zaintza zerbitzua instalazio horietan gertatu zen sutearen ondorioz hasi zen, eta hasieran kontratu txikiaren figuraren barruan sar zitekeela pentsatu zen. Lapurreta eta bandalismo ekintza sarriak direla-eta, zerbitzu horren iraunaldia hasieran kalkulatu baino epe luzeagoan handitzeko beharra ikusi da. Egoera hori zuzentzeko, 2016/05/27an (ALHAOn argitaratuta) deitutako prozedura irekiaren bitartezko lizitazio espediente bat onartu da. Hari dagokion kontratua 2016/07/31n sinatu zen.

Indesa 2010 SLri dagokionez, kontratazio espedienteak izapidetu dira 2017 eta 2018 bitartean, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren iritzia aipatutako ia hornidura guztiak prozedura irekiaren bitartez adjudikatzeko.

